

# FEMINISTOK ESTRATEGIAK TRUKATZEN

EMAKUMEONTZAKO INDARKERARIK GABEKO  
BIZITZA BATEN ALDE

PROZESUAREN SISTEMATIZAZIOA



## ARABA

"Itziar" Elkarteen etxea  
01003 Gasteiz  
Tel: 945 27 73 85  
araba@mugarikgabe.org

## BIZKAIA

Vicente Garamendi Taldea 5, lokalka  
48006 Bilbo  
Tel: 944 15 43 07  
bilbao@mugarikgabe.org

## GIPUZKOA

Katalina Eleizegi 46, behea, 3. atea  
20009 Donostia  
Tel / Fax: 943 44 59 77  
gipuzkoa@mugarikgabe.org

### Antolatzaileak:



**MUGARIK GABE**  
[www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)

### Laguntzaileak:



### Babeslea:



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

2019ko iraila

Cure lana konpartitu eta babestu nahi baduzu, baduzu nola egin.

Eskerrik asko!



**Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)** Dokumentu hau Creative Commons lizentziarekin dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

**Lizentzia osatua:** [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es\\_](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_)

## AURKIBIDEA

### FEMINISTAK ESTRATEGIAK PARTEKATZEN ..... 5

### KALEETAN ..... 6

<b>MUGIMENDU FEMINISTAREN KRIMINALIZAZIOA</b> .....	6
· INICIATIVA MESOAMERICANA DE DEFENSORAS DE DERECHOS HUMANOS .....	7
· ERRESISTENTZIA ESTRATEGIAK .....	8
<b>ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE</b> .....	9
· MUGIMENDU FEMINISTAREN PROTOKOLOAK BIRPENTSATZEN .....	10

### LEGEETAN ..... 13

<b>LEGERIA</b> .....	13
<b>ZUZENBIDE SISTEMA</b> .....	20
· ESPAINIAKO ESTATUA .....	20
· EL SALVADOR .....	22
<b>AUZITEGIKO GIZARTE LANETIK ALTERNATIBAK</b> .....	23
<b>ONDORIO OROKORRAK</b> .....	25

### EKITE INTEGRALA ..... 26

<b>JENDARTE ZIBILAREN ETA ERAKUNDEETAKO ERAGILEEN ARTEKO ARTIKULAZIO ESPERIENTZIAK</b> .....	26
· SISTEMA NACIONAL PARA LA IGUALDAD SUSTANTIVA .....	26
· MPV - MUJERES DE LA ZONA NORTE .....	27
· POLITIKA PUBLIKOAREN BATZORDE SUSTATZAILEA. Medellín - Colombia .....	29
· EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAK ERAUZTEKO DEPARTAMENDUKO MAHAIA. Antioquia - Colombia .....	30
<b>BIKTIMA ETA BIZIRIK ATERA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZA</b> .....	30
<b>ONDORIO OROKORRAK</b> .....	32

### CURE GORPUTZEN GAINEAN ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDE ..... 33

· ABORTUA EL SALVADORREN 98KO LEGE ALDAKETAREN AURRETIK .....	33
· 98TIK ABORTUAREN ERABATEKO ZIGORTZEA .....	34
· HERIOTZAGATIK KONDENATUAK .....	34
· LA AGRUPACIÓN .....	35
· GATAZKA POLITIKOA .....	36
· EGINDAKO BIDEA .....	36
· BORROKAN JARRAITZEN DUGU .....	37
· ASKATUTAKO EMAKUMEAK: Erreparaziorako bide geldoa .....	38







## FEMINISTAK ESTRATEGIAK PARTEKATZEN

Dokumentu honek 2018an zehar aurrera eramandako esperientzia sistematizatzea du helburu. Esperientzia hori «Feministas Intercambiando Estrategias por una Vida Libre de Violencias para las Mujeres» deitu dugun prozesuaren baitan eman zen eta helburu nagusia, hala erakunde publikoak nola emakumeen antolakundeak eta mugimendu feminista, indarkeria matxistari aurre egiteko orduan tresnetan eta gaitasunetan indartzea izan da.

Mugarik Gabek prozesu hau Arabako Emakumeen Asanbladarekin batera bultzatu zuen, bertan, El Salvadoroko La Colectiva Feminista antolakundeak eta Kolonbiako Corporación para la Vida Mujeres que Crean korporazioak ere parte hartu zuten. Gasteizko Udalak finantzaturako proiektu baten parte izan da.

Lehen fase batean, 2018ko maiatza eta ekaina bitartean, Vitoria-Gasteizko mugimendu feministarekin hainbat topaketa egin ziren. Espazio horietan, emakumeentzako indarkeriatik libre dauden jendarteetarantz gerturatzeko, geure burua indartzeko eta tresnaz hornitzeko bidean sakondu beharreko gaiak zehaztu genituen.

Bigarren fasea El Salvadorren urte bereko irailean garatutako hartu-emana izan zen, Mugarik Gabek eta Arabako Emakumeen Asanbladak parte hartzeaz gain, Euskal Herritik, genero indarkeria kasuetan aditua den abokatu batek, auzitegiko gizarte langile batek eta Aizan elkarteak kudeatutako Berehalakoan Hartzeko Zentroetako gizarte langile batek ere parte hartu zuten. Kolonbiatik El Salvadorrera bidaiatu zuten Corporación para la Vida - Mujeres que Crean elkarteak ordezkaritza batek eta Antiokiako Emakumeen Idazkaritzako abokatu batek.

Tresnak eta jardunbide egokiak partekatzeko aukera eman zigun aste horrek, bizirik atera diren emakumei laguntasun prozesuez, erakundeen eta emakumeen antolakundeen egituratze esperientziaz hitz egiteko, herrialde bakoitzean indarkeria matxistaren gainean dagoen legeria aztertze, bai eta indarkerian espezializatutako epaitegien esperientzien gainean aritzeko ere.

Esperientzia horren ostean, azaroan, Vitoria-Gasteizen elkartu ginen berriz ere, orduan, hala parte hartzen zuten erakunde publikoei nola emakumeen antolakundeei eta mugimendu feministari El Salvadorren jasotako ikaskuntzen berri emateko helburuarekin.

Horrela, hirugarren fase hori Arabako hiriburuan egin zen El Salvadoroko La Colectiva Feministako kideen, Kolonbiako Mujeres que Crean elkartearen, Arabako Emakumeen Asanbladaren eta El Salvadorrera joandako hainbat profesionalen parte hartzearekin. Beraiekin batera, indarkeria matxistaren gaineko legeriaren inguruan jasotako ikaskuntzen berri emateko hainbat gune izan genituen, justizia sistemaren mugen gainean aritzeko espazioak, biktima eta bizirik atera direnen laguntza eta erreparazio prozesuen eta testuinguru bakoitzean mugimendu feministaren borroken eta estrategien gainean hitz egiteko uneak.

Prozesuaren ondorio eta ikaskuntzak lan honetan bildu nahi izan ditugu, zalantzarik gabe indarkeria matxistaren kontrako borrokarako tresna zehatzetan sendotzeko balio dituztenak.

## KALEETAN

Vitoria-Gasteizen 2018ko maiatza eta ekaina bitartean egindako eztabaidak mugimendu feministaren hartu-emanerako eta hausnartzeko espazioak izan ziren, indarkeria matxistei aurre egiteko orduan geure burua tresnetan eta gaitasunetan indartzeko guneak. Topaketa horietan landutako gaiak honako hauek izan ziren:

- Jendarte mugimenduen kriminalizazioa, emakumeen eskubideen defentsa eta mugimendu feminista bereziki nabarmenduta.
- Indarkeria matxistaren aurrean erantzun protokoloak.
- Indarkeriari aurre egiteko eta biktimen eta bizirik atera direnen justiziarako eta erreparaziorako eskubidea bermatzeko Espainiako Estatuko justizia sistemaren mugak.

Azken gai horrekin zerikusia duen edukia «Zuzenbide Sistema» atalean (20. orria) jasota dago.

## MUGIMENDU FEMINISTAREN KRIMINALIZAZIOA

*«Krisian dagoen mundu batean elite pribilegiatuak mantentzeak erresistentzia kriminalizatzea behar du» (Yayo Herrero)*

Protesta soziala kriminalizatzea, intentsitate ezberdinekin, botere hegemonikoak bere pribilegioak mantentzeko estrategia eta ama lurrairen kontra jotzen duen garapen eredu gisa, ez da fenomeno berria eta munduko txoko guztietan gertatzen da. Errepresioak hainbat forma izan ditu historian zehar, baita Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan ere. Adierazpen askatasunerako eskubidea mugatzen duten neurriak, Mozal Legea izenez ezagutzen den tresnaren bitartez, egun kriminalizazio horrek hartzen duen itxuraren adibide argiak dira.

2018ko maiatzean egindako feministen arteko eztabaidan, Euskal Herriko mugimendu feministak aurre egin behar dien kriminalizazio moduen inguruan hausnartzea planteatu zen. Horretarako, Latinoamerikako kriminalizazio testuinguru gogorretan erresistentzia estrategiak garatzeko lanean ari diren kideen esperientziekin kontatu genuen, Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos ekimenarekin adibidez, Lydia Alpizarren parte hartzearekin, eta Mercedes Rafaelen parte hartzearen bitartez Las Dignas (El Salvador) elkartearen esperientziarekin.

Hegoa antolakundeko ikertzaile eta kide den Gloria Guzmánekin gunea erraztu zuen. Kriminalizazio testuinguruaren gaineko sarrera izan zuen abiapuntu, horretarako Amnesty International elkartearekin



Femisten arteko eztabaidak Vitoria-Gasteizen. 2018ko maiatza

ren Informe de Amnistía Internacional 2017/18. La situación de los Derechos Humanos en el Mundo txostenean azpimarratutako hainbat aspektu adibide bezala hartuta. Bertan jasotzen denaren arabera, aipatutako epean Espainiako Estatuan «neurritz kanpo murriztu zen adierazpen askatasuna eta pertsonen bilera baketsurako eskubidea...»; gainera, aipatzen du «sare sozialetan terrorismoa goratzeagatik eta biktimak umiliatzeagatik hamarnaka pertsona auzipetu...» zirela. «Kasu askotan, terrorismo delituak egitera bultzatzen ez zuten iritziak eman zituzten pertsonen kontrako salaketak jarri zituzten agintariek, giza eskubideen nazioarteko eskubidearen baitako adierazpenetan ezarritako zeudenak (...) urte honetan 20 pertsona erruduntzat joak izan dira horrelako salaketengatik (...)». Cassandra Vera ere aipatzen zuen, 2017an «terrorismoaren biktimak umiliatzeagatik» kondenatua izan zena, Carrero Blancoren hilketaren inguruko txiste bat txiokatzegatik, 1973an gertatutako hilketa.

Mozal Legearen bidez aurrera eramandako kriminalizazio instituzionalaz gain, mugimenduari zilegitasuna kentzea eta berau estigmatizatzea ere jendarte mailako kriminalizazio adibideak dira, zeintzuei mugimendu feministak, emakumeen eskubideen aldeko borroka honetan, ia sistematikoki aurre egin behar dien.

## INICIATIVA MESOAMERICANA DE DEFENSORAS DE DERECHOS HUMANOS

Iniciativa Mesoamericana de Defensoras de Derechos Humanos (IMD) ekimena 2010ean sortu zen erdialdeko Ameriketako defendatzaileen antolakundeen lotura gune bezala, euren arteko kidetasuna testuinguru erabat bortitzean lan egiten dutela da. Egun, mila defendatzaile baino gehiago norbanako bezala edota modu antolatuan IMDren parte dira, eskualdeetan martxan dauden sare autonomoen bidez.

Erdialdeko Amerikako herrialdeetan emakumeen kriminalizazio fenomenoak ulertzeko eta estrategia bateratuak garatzeko antolatuta beharrik gaituak jaio ziren. Herrialde horietan defendatzaileek izandako eraso andanaren ezaugarriak identifikatzeko diagnostiko bat egin zen.

2012an eraso ezaugarriak, defendatzaileen profilak baita indarkeria burutu duten eragileak ere erregistro batean jasotzen hasi ziren. Hasieratik indarkeriaren aniztasuna ikuspegi kolektibo, feminista eta eraldatzaile batetik kontuan edukiko zuen erantzun bat emateko beharra ikusi zen, erreaktiboa izateaz gain, babesa eta elkar zaintzea funtsezkoak izango zituen.

IMDk defendatzaileak eta euren beharrik modu oso batean ulertuko dituen ikuspegi batekin lan egitea bilatzen du, jendarte ehuna berreraikitzea ere bilatuta, erauzketa enpresen lurraldea eskuratzeko estrategia eta indarkeriagatik kaltetua izan dena, alegia.

Defendatzaileei egindako erasoen azken biurteko txostena 2015-2016 urte arteko datuekin argitaratu zen eta euren webgunetik jaitsi daiteke...<sup>1</sup>

### 1. TAULA. Eraso guztiak herrialdeka sailkatuak (2015-2016)

Urtea	Guatemala	Mexiko	Honduras	El Salvador	Nikaragua	Guztira
2015	72	312	249	60	42	735
2016	159	550	561	42	150	1462
GUZTIRA	<b>231</b>	<b>862</b>	<b>810</b>	<b>102</b>	<b>192</b>	<b>2197</b>
%	<b>%10.5</b>	<b>%39.3</b>	<b>%36.9</b>	<b>%4.6</b>	<b>%8.7</b>	<b>%100</b>

Iturria: Registro Mesoamericano de Agresiones a Defensoras de Derechos Humanos (2015-2016) de la IM-Defensoras

<sup>1</sup> <http://im-defensoras.org/wp-content/uploads/2018/05/INFORME-DE-AGRESIONES-A-DEFENSORAS-2015-2016-FINAL-DEF.pdf>

Azken txosten horrek 2.197 eraso ditu jasota, datuen erregistroa hasi zenean baino % 253 gehiago. Hori, hein batean, erregistro eta sistematizazio gaitasuna handitu delako da, baina erasoak, erritmoa eta indarkeria maila ere modu esanguratsuan handitu dira. Honduras eta Mexiko izan ziren datu gehien erregistratu ziren tokiak.

Txostenak ondorioztatzen du erasoetako asko defendatzaile berdinari behin eta berriz egindakoak direla. Eraso motari dagokionez, izaera kolektiboa dutenen hazkunde bat dago, martxetan ematen den errepresioari erantzuten diotenak, adibidez. Eraso mota nagusienak larderia eta xaxatzeak dira, eta bigarren postuan leudeke kalumniak eta markatzeak.

2012tik gehien erasotutako defendatzaileak lurrairen eta lurraldearen defentsan lan egiten dutenak izan dira. Hurrengo esparru kriminalizatuena informazio eskubidearen aldekoa da (erailketa gehiagoko daude) eta hirugarren postuan leudeke justizia eskatzen duten taldeak, euren alaberi hilketak salatzen dituzten amen eta desagertutako pertsonen amen mugimenduak esaterako.

Azken txostenak 21 aktibista kide erailda eta 44 saiakera jasotzen ditu. Hortaz, 56 dira erailak 2012an erregistroa hasi zenetik.

Erasotzaileei dagokionez, egile nagusienak estatuko eragileak dira (% 53-58). Defendatzaileengandik gertukoek, bikote edota komunitatea kasu, erasoan % 13 ordezkatzeko dute, eta enpresa transnaziionalak % 10.

Erasotzaile ezezagunen ehuneko altu bat ere badago, kasu askotan zenbait eragile nabarmenak dakarren arriskuagatik. Kriminalizazio handiagoari beldurra, arrazoi ekonomikoak eta justizian dagoen konfiantza urriak ere erasoen salaketa baxua izatea dakar.

Corputz-lurraldearen defentsa atalean non gainera ugalketa eta sexu eskubideekin zerikusia duten erasoak ere jasotzen diren, 7 hilketa erregistratu dira, hedabide eta erlijio taldeen aldetik mugimendu feministaren izena zikintzeko kanpaina garrantzitsuez gain.

Azken urteetan, IMD norbanakoen kasuei jaramon egitetik lurralde oso bateko talde kasuei erantzutera ere pasa da, Hondurasean adibidez. Azken urtean, estatuko errepresioaren ondoriozko erasoak eta hilketak asko areagotu dira Nikaraguan.

Txostenak eragileentzako gomendioen atal bat ere badu, hala nola estatuentzat, jendarte mugimenduentzat, eskualdeko eta nazioarteko erakundeentzat, nazioarteko lankidetzarentzat, etab.

## ERRESISTENTZIA ESTRATEGIAK

Topaketan zehar kriminalizazioari aurre egiteko hainbat estrategia partekatu ziren. Hauek Euskal Herriko mugimendu feministarentzat baliagarriak izan daitezke:

- Legearen mugak eta defendatzaile bezala ditugun eskubideak ezagutzeko formakuntza juridikoa. Garrantzitsua da batez ere Mozal Legearen eta desobediencia zibilaren gaineko araudiaren ezagutzea.
- Izendatzen ez dena ez da existitzen, beraz, beharrezkoa da eskubideen defentsaren kriminalizazioaren esparruan ematen diren erasoak berriaz izendatzea.
- Funtsezkoa da erantzun kolektibo eta feminista osoa ematea, errektiboa eta salaketazkoa, baina era berean eraldatzailea eta proposatzailea.
- Zaintzaren eta sendatze kolektiboaren dimentsio eraldatzaile eta politikoa funtsezko elementu gisa, indarkeria normalizatzeari uzteko ezinbestekoa.
- Tokiko sareak, profesionalenak (ACAB - abokatuen sarea kasu) eta nazioarteko elkartasun sareak, zeintzuek elkar babesteko eta laguntzeko borroka konetatuta borroka zeharkako bihurtuko dituzten. Babesaren elkarrekotasunak sistema apurtzeko balio duen ehuna sortzen du.



- Giza Eskubideen nazioarteko mekanismoak erabiltzea, esaterako, estatuak berretsi dituzten eskubideak defendatzeko eskubidea jasotzen duten adierazpenak.
- Defendatzaileei egindako erasoen erregistroak sistematizatzea eta diagnostiko bat egitea ahalbidetzen digu ezaugarrien, intentsitateen, testuinguru bakoitzeko formen gainean eta horrela egokitutako babes neurriak ezarri ahal izatea.
- Hedabide aliatuek eta sare sozialek indar eraldatzaile garrantzitsua dute kriminalizazioa publikoki salatzeke eta ikusarazteke (kasu bakoitzaren arriskua baloratuta).
- Adierazpen askatasunaren aurkako erasoen kasuetan babeserako estrategia zehatzak garatzea eta praktikan jartzea (anonimotasuna, ezizenak, grabaketak erabiltzea).
- Kriminalizazioaren aurrean defentsarako estrategiak partekatzea, munduko beste tokietako ki-deekin eta baita gure testuinguruan ere esperientzia historikoa duten kolektiboekin.

## ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE

Bigarren topaketek mugimendu feministatik indarkeria matxistei ematen diegun erantzuna birpentsatzeko balio izan ziguten, lehenik eta behin, erantzun horiek izan behar dituzten ezaugarriak kolektiboki identifikatuta.

Hauk dira mugimendu feministak azken urteetan izandako esperientziatik berreskuratu ditugun elementuak:

1. Indarkeria matxisten aurreko erantzunak mugimendu feministaren aurretiazko hausnarketa batean ezarriak ditu oinarriak eta berau eusten duen marko teoriko batean.
2. Indarkeria matxistei erantzutean ezarritako helburuen argitasunak beronen izaera zehazten du (salaketa, bistaratzea, eragin politikoa, biktimei babesa eta elkartasuna...).
3. Ezinbestekoa da era kolektibo eta bateratuan erantzutea (jendarte zibileko eta erakundeetako eragileekin koordinazioa eta egituratzea).
4. Erasoen aurrean emandako erantzunek indarkeria desnaturalizatzen dute, egunerokoaren ohikotasun dinamika modu sortzailean apurtuta (elkarretaratzeak, performanceak, dolu egunak, erri-tuak...).
5. Beharrezkoa da biktimaren eta bere inguruneke pertsonen eskaerak eta behar zehatzak kontuan izanda ekitea, dimentsio humanoa galdu gabe eta kasu bakoitzean biktimaren babesa eta intimitea bermatuta erantzuteak izan ditzakeen arriskuen gaineko analisisa eginda.
6. Era berean, ezinbestekoa da emakume bezala jasaten ditugun zapalketen askotariko nolakotasuna ikusaraztea (jatorri, adin, sexu nortasun...).
7. Erakundeek diskurtso feminista bereganatu izanaren aurrean, beharrezkoa da mugimendu feminista eragile nagusia dela azpimarratzen jarraitzea.

Lehen hurbilketa horrek mugimendu feministatik indarkeria matxistei erantzuteko dituen gaitasun, baliabide eta tresnen inguruan hausnartzera eraman gintuen. Baliabide publikoek espezializazioan dituzten gabeziek eta baliabideen kalitate faltaren ondorioz, askotan ez zaie emakume biktima eta bizirik atera direnen behar eta eskaerei behar bezala erantzuten, eta honek eragiten du zenbaitetan mugimendu feminista izatea biktima eta bizirik atera direnen laguntasun funtzioak garatzen dituen. Administrazio publikoek emakumeen eskubideak eta segurtasuna bermatzen dituzten mugimendu feministak duen behartze funtzioa indartzen jarraitu behar dugu.

## MUGIMENDU FEMINISTAREN PROTOKOLOAK BIRPENTSATZEN

Bigarren momentu batean, indarkeria matxistei aurre egiteko Vitoria-Gasteizen ditugun protokoloen gaineko analisi eta hausnarketa egiteko gunea ireki genuen. Ondoko lerroek protokolo horien ezaugarriak jasotzen dituzte, baita identifikatu ditugun indargune eta ahulguneak ere.

### Emakumeen Mundu Martxako protokoloa

Euskal Herrian euren bizi proiektua garatzen duten emakumeen erailketa kasuetan jarriko da martxan.

#### Ezaugarriak:

- Erailketaren albistea prentsa idatzian argitaratu eta 24 ordura mobilizazioak deituko dira (elkarretaratzeak).
- Erailketa gertatu den herrian manifestazio bat deituko da.
- #IndarkeriaMatxistikariek hastag-a erabiliko dugu.
- Webgunean zabalpenerako hainbat euskarri eta tresna ditugu: emakumeenmundumartxa.eus/bi-tartekoak.
- Erantzunetan sormena erabiltzea sustatuko da.
- Eraildako emakumeak jasan dituen askotariko indarkeriak nabarmentzearen garrantzia azpimarratzen da.
- Webgunean Euskal Herrian eraildako emakumeen erregistro bat jasotzen da. <https://www.emakumeenmundumartxa.eus/>

#### Indarguneak:

- Ikusgarritasun handi goa, erantzun azkar eta bateratua EH osoan.
- Bestelako zapalkuntzen aitortza eta bistaratzea.

#### Ahulguneak:

- Ez da toki bakoitzeko berezitasunetara egokitutako erantzuna.
- Gasteizen erakundeak erantzunean aurreratzen direla gertatzen zaigu, informazio gehiago dutelako, beraz, ezin gara erritmoetan lehiatu.
- Erailketa kasuetan soilik jartzen da martxan, bestelako indarkeriak ezkutatua.
- Salaketarekin interpelatzen ditugun eragileen (erakundeak sozialak,...) argitasun falta.



Femisten arteko eztabaidak Vitoria-Gasteizen. 2018ko maiatza

**Vitoria-Gasteizko jaietako protokoloa.**

Era berean, Gasteizko mugimendu feministak jai giroan ematen diren erasoen aurrean martxan jarzen den protokolo bat dauka. Protokoloaren hasieran eraso matxistatzat jotzen dituenak zehazten dira eta horien aurrean jokoera irizpide batzuk ezartzen ahalegintzen da:

**Tresnak: Protokoloaren dokumentua, telefono bat, irrati iragarkia**

AURRETIAZKOAK	ARRETA/LAGUNTZA	SALAKETA
<ul style="list-style-type: none"> <li>· Eraso sexisten aurkako aldarrikapenak txosna eta tabernetan.</li> <li>· Protokoloa jendarteratzeko komunikazio kanpaina.</li> <li>· Telefona eta iragarkia taberna/txosna guztietan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Erasotua izan den norbait gerturatzan denean lehentasun osoa emango diogu, entzun eta laguntzen dugu.</li> <li>· Eraso bat ikusten badugu laguntza eskainiko dugu:             <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ezetz esaten badigu: ez gara tematuko.</li> <li>2. Baietz esaten badigu: laguntza eskainiko diogu eta jaien arduradunari eta mugimendu feministari erasoaren berri emango diegu.</li> </ol> </li> <li>· Erasotzaileari eremutik alde egiteko eskatuko diogu, ez balu egingo bertatik botako genuke jendekate bat eginda.</li> <li>· Erasoen aurkako iragarkia jarriko dugu.</li> <li>· Erasotua izan den pertsonari: segurtasun eremu bat eskainiko diogu; lagundua izatea, mediku arreta edo salaketa jartzea behar duen galdetuko diogu, dagokion laguntasuna mugimendu feministak egingo du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Hurrengo egunean elkarretaratzera deituko da Andra Mari Zuriaren Plazan (tabernek itxi egingo dute)</li> <li>· 00:00etan, jai eremuan musika kenduko da, sirena eta iragarkia jarriko dira.</li> <li>· Mugimendu feministak komunikatu bat irakurriko du taula gainean, bengalak piztuko dira eta salaketa / autodefentsa feministaren aldarrikapen pankarta bat zabalduko da. (Tabernek eta bestelako eremuek ere musika 5-10 minutuan etengo dute)</li> </ul>

**Indarguneak:**

- Formakuntza auzoetara iristen ari da eta protokoloa gero eta gehiago hedatzen ari da.
- Eremu horretan ematen diren erasoak ikusarazteko eta salatzeke balio du.
- Etengabeko ikaskuntza eta berrikuspenera ahalbidetzen du dokumentu «irekia» delako.
- Erasotua izan diren emakumeak dira protagonista nagusiak, beraiek erabakitzen dute.

**Ahulguneak:**

- Auzoetan ematen den aurretiazko formakuntzan gabeziak, erasoak indarkeria matxisten, patriarkatuaren eta abarren egiturazko eremuan kokatzeko.
- Metodologiak funtzionatzen duen edo egokia den zalantza dugu.
- Ez gara auzo guztietara iristen, auzoen ezaugarri aniztasuna.
- Auzoekin lanketa soilik jaietan egiten da, ez da urteko gainontzeko egunetan lantzen.
- Jaietan iritsi ezin garen eremu oso ezberdinak daude. Lehenengo adibidea: Txosnen eremuan eragin dezakegu, baina zailtasunak ditugu jaietako bestelako guneean eragiteko, esaterako, Blusetan.

- Gaueko ordu txikietan bai eta beste gune batzuetan protokoloa martxan jartzeko arazoak. Bigarren adibidea: jai eremutik kanpo goizaldean izandako erasoak, etxera bueltan, ordu horietan lanera sartzen diren emakumeei egindako erasoak...
- Aipatutako laguntza ematea eta jarraipena egiteko muga handiak.
- Ez gara bestelako ekitaldi «itxietara» iristen, gauaren eta jaiaren eremuan ere sartzen direnak, jaialdiak esaterako.

### Erronkak:

- Indarkeria matxisten aurkako borrokan, erakunde publikoekin artikulatzeko planteatzen ditugun helburuak zehaztea.
- Indarkeria matxistaren aurkako borrokan, mugimendu feministak eragile politiko nagusia den heinean, duen eginkizuna aitortzeko erakundeek konpromisoa har dezaten lan egitea.
- Bestelako indarkeria motak bistaratzeko eta erantzutea.
- Erasoei erantzuteko eskura ditugun tresnen berri ematea.
- Beste eragileekin egituratzea espazio gehiagotara iristeko (jaietako bestelako eremuak, bestelako ekitaldiak, jaialdiak...)



Femisten arteko eztabaidak Vitoria-Gasteizen. 2018ko maiatza

## FARRUKAS: Autodefentsarako eta beldur gabe bizitzeko eskubidea

Iruñeko Farrukas-en esperientziak indarkeria matxistaren aurrean mugimendu feministatik garatzen diren bestelako erantzun moten adibidea gerturatzen digu, autodefentsarako dugun eskubidea aldarrikatuta. Kolektibo autonomo, askotariko eta belaunaldi arteko gisa aurkezten dira, parte hartzaileen gehiengoak klase ertaineko emakume zuriak direla aitortuta.

2013an Gora Iruñarekin protokoloen gaineko elkarlana hasi zuten, San Fermin jaietarako erakundeekin batera lan eginda. Aurrerago, erantzuna gainontzeko auzoetako jaietara zabaltzea erabaki zen. 2014an izandako erasoen oihartzunaren eta larritasunaren ostean, erantzun irmoagoa ematea erabaki zen kolektibo gisa eratuta.

Farrukasen gaueko manifestazioek indarkeria matxisten aurrean erantzun irmo eta antolatutako bat bihurtzea bilatzen dute, espazio publikoa zuziekien okupatuta, janzkera ilunekin (beltza) eta aurpegia estaltzen duten kaputxekin. Paradoxikoki, estalita joateak emakumeak eta euren eskubideak ikusgarri egitea ekarri du.



Horrelako mobilizazioek ahalduz kolektiboko giroa sortzen dute, non emakumeek terrorismo patriarkalari aurre egiteko gure tresnen jabe egiten garen. Emakumeek gaua beldur gabe bizitzeko eta gure gorputzak mehatxatuak direnean autodefentsaz baliatzeko dugun eskubidea aitortzetik abiatzen dira.

Emakumeek oldarkortasuna baliatzeko eta gure burua defendatzeko aukera ukatua izateak, Farrukasen jokabidea bortitza izanagatik kritikatu izatea ekarri du.

Zentzu horretan, «beldurrak bandoz aldatuko du» lema ezaguna inflexio puntua izan zen eta estrategia politiko garrantzitsua, emakumeek erasoez defendatu ezin garela dioen arau inplizitua modu bihurkarian apurtuta, sinbolikoki hori egiteko dugun eskubidea geureganatzera pasatuta.

## LEGEETAN

### LEGERIA

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko jendarteetara urratsak emateko marko arauemaileak ere izan behar dira, emakumeek jasaten dituzten indarkerien konplexutasuna eta aniztasuna kontuan hartuko dutenak, euren babesa eta eskubideak bermatuko dituztenak eta berau ezartzeko beharrezko baliabideez lagunduak izango direnak. Benetako konpromiso politikoa, gainera, indarkeria matxistei osoki heltzeko aukera ematen duten politika publikoetan islatu behar da, prebentzioa eta indarkeria matxistei aurre egiten dieten emakumeen arreta eta erreparazioa sakonki aztertuko duena.

Atal honetan El Salvadorko, Kolonbiako, Espainiar Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) indarkeria matxistaren inguruko legeen azterketa jaso nahi izan dugu, horien indargune eta ahulguneak identifikatzeko, herrialde bakoitzean marko arauemaileetan aurrera egiteko erronka gisa har daitezkeenak.

#### Topaketetan eta dokumentu honetan aztertutako legeak:

**Espainiar Estatuko 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero indarkeriaren aurkako babes osorako neurri buruzkoa**, aurrerantzean 1/2004 Legea, bere sorreran jardunbide egokitzat jo zen eta indarkeria matxista emakume eta gizonen arteko ezberdintasunaren adierazpen larriena bezala aitortzeagatik inflexio puntu bat izan zen. Hala ere, haren onarpenetik hamalau urte igaro ostean, ez dira esperotako emaitzak lortu eta genero indarkeria, nagusiki bere adierazpen larriretan, ez da gutxitu.

**Ley Especial Integral para una Vida Libre de Violencia para las Mujeres de El Salvador** legea, aurrerantzean LEIV, 2010ean onartua eta 2012an indarrean sartua, besteren artean, jendarte zibileko eragileen bultzada eta parte hartzearekin garatua izan zela du ezaugarri, horien artean zeresan garrantzitsua izan zuten emakumeen antolakunde feministek.

**Kolonbiako Ley 1257 del 4 de diciembre del 2008, aurrerantzean 1257 Legea**, indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea bermatuko zuen tresna juridiko baten alde emakumeen mugimenduen eta mugimendu feministaren urteetako lanaren emaitza izan zen. Lege horren testuinguruan emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazio moduen sentsibilizazio, prebentzio eta zigor arauak ematen dira. Legea onartu zenetik izandako aurrerapen nagusia agintariak haren gaineko ezagutza izan da. Hala ere, emakumeen kontrako indarkeria hazi egin da azken urteetan.

Legearen azterketak hainbat ikaskuntza berreskuratzeko balio digu, emakumeentzako indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea bermatzeko aurrera egitean tresna gisa balio izango duten marko arauemaileak eskatzeko eragin indartzeko.

## Indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea bermatzea

Legeen izenak berak ezberdintasun garrantzitsuak agerian uzten ditu horiek duten helburuaren ikuspuntuaren gainean. Espainiar legearen kasuan, ikuspuntua, **babes neurri osoetan** azpimarra jarrita indarkeriaren aurka ekitean dago; salvadortar legeak, berriz, emakumeez eskubidedun pertsona bezala hitz egiten du eta legeaz **indarkeriarik gabeko bizitza izateko emakumeez duten eskubidea ezartzeko, bermatzeko eta aitortzeko tresna gisa**. Eskubide hori bera da kolonbiar legeak aitortzen duena.

El Salvadorko LEIVaren arabera, diskriminazio mota orotatik aske izatean datza eskubide horrek, aintzat hartuak izatean eta jokaera estereotipatueta ere duenak, gutxiagotasun edo mendekotasun kontzeptuetan oinarritutako praktika sozial eta kulturaletatik aske heziak izatean datza.

Kolonbiako 1257 Legeak eskubide horren bermerako hala eremu **publikoa nola pribatua** aitortzen ditu, barneko eta nazioarteko ordenamendu juridikoan aitortutako eskubidea gauzatzeko, bere babes eta arretarako prozedura administratibo eta juridikoak eskura izatea, eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren politika publikoak eratzea.

## Printzipio gidariak

Legeen printzipio gidariak, botere publikoek aritzeko duten eginbeharraren berri ematen duten markoak izanda, eta horiek euren garapen arauemaile errearen arabera aztertutako badaitezke ere, lege bakoitzaren izaeran eta lehentasunetan ezberdintasun argiak ere erakusten dizkigute.

Espainiar Estatuko 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoak ondoko hauek jasotzen ditu:

- a) **Hiritarren prebentzioko sentsibilizazio** neurriak indartzea, botere publikoak hezkuntzan, jendarte zerbitzuetan, osasunean, iragarki eta hedabideen arloan tresna eraginkorrez hornitzea.
- b) **Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak** ezartzea, Administrazio Publikoaren aurrean eska daitezkeenak, eta horrela, helburu horretarako ezarri diren zerbitzuak azkar, gardengi eta modu eraginkorrean erabil daitezkeela ziurtatzea.
- c) Legearen helburuek eskatutako gutxiengoak lortu arte informazio, arreta, larrialdi, babes eta erreperazio osoko **jendarte zerbitzuak** indartzea, bai eta jada badiren **udal eta autonomia** eremuko zerbitzuen koordinazio sistema eraginkorra ere ezartzea.
- d) **Lan eta funtzionario eremuan eskubideak** bermatzea, genero indarkeria jasan duten langile edo funtzionarioen egoerkin lan eta enplegu publikoko harremanen eskakizunak bateratuko dituztenak.
- e) Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei **eskubide ekonomikoak** bermatzea, beraien jendarte integrazioa errazteko helburuarekin.
- f) Erakundeen **babes sistema osoa** ezartzea, horren baitan Estatuko Administrazio Orokorrek, Emakumearen gaineko Indarkeriaren kontrako Gobernu Ordezkaritza Bereziaren bitartez, Emakumeen gaineko Indarkeriaren Estatu Behatokiaren lankidetzarekin, Lege honetan jasotzen diren indarkerien biktima direnei babesa eskaintzeko bideratutako politika publikoak sortzea sustatuko duena.
- g) Genero indarkeriaren biktimei, eskumeneko instantzietatik, babes osoa ziurtatzeko indarrean dagoen **zigor eta auzibide markoa indartzea**.

- h) Botere publikoetako mota guztietako baliabide eta tresnak **koordinatzea**, genero indarkeria gertakarien prebentzioa ziurtatzeko, eta, dagokion kasuan, errudunei zigor egokia ezartzea.
- i) Genero indarkeriaren aurka jendarte zibiletik ekiten dioten erakunde, elkarte eta antolakundeen **lankidetz**a eta parte hartzea sustatzea.
- j) Biktimak informatzeko, artatzeko eta babesa emateko prozesuetan esku hartzen duten profesionalen kolektiboen **espezializazioa** bultzatzea.
- k) Neurrien **zeharkakotasun** printzipioa bermatzea, horrela, horien aplikazioan genero indarkeriaren biktima izan diren emakume guztien behar eta eskaera zehatzak kontuan hartuko dira.

Ley Especial Integral para una Vida Libre de Violencia para las Mujeres de El Salvador legeak honako hau dio:

- a) **Especializazioa:** Arreta berezitu eta espezializatu baterako eskubidea, emakumeen eta, modu berezian, zaurgarritasun edo arrisku baldintzetan dauden horien behar eta egoera zehatzen arabera-koa.
- b) **Aldekotasuna:** Lege honetan agertzen diren xedapenen inguruan gatazka edo zalantza izaten den kasuetan, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeentzat aldekoena dena gailenduko da.
- c) **Osoatasuna:** Emakumeen kontrako indarkeria errotik kentzeko Estatuko Erakundeen koordinazioari eta egituratzeari buruz hitz egiten du.
- d) **Sektoreartekotasuna:** Nazioko eta tokiko sektore eta eragileen programa, ekintza eta baliabideak egituratzea funtsatzen duen printzipioa da, hautematerako, prebentziorako, arretarako, babeserako eta zigorrerako, bai eta biktimen minaren erreparaziorako ere.
- e) **Laikotasuna:** Emakumeen aurkako indarkeria zurrizko inolako ohitura, tradizio ezta erlijio arrazoirik ezin dela argudiatu dioen printzipioa.
- f) **Erabateko lehentasuna:** Indarkeriarik gabeko bizitzarako, edozein eremutan, emakumeek duten eskubidea errespetatzeari buruz diharduen printzipioa.

Azkenik, hauek lirateke Kolonbiako 2008ko abenduaren 4ko 1257 Legearen printzipio gidariak:

1. Benetako berdintasuna eta eraginkorra.
2. Giza eskubideak.
3. Erantzunkidetasun Hatsarrea.
4. Osoatasuna.
5. Autonomia.
6. Koordinazioa.
7. Ez diskriminatzea.
8. Arreta Berezitua.

## Araubideen jardun eremua.

1/2004 Legeke lehen artikuluetan indarkeriaren prebentzioa, zigortzea eta errotik kentzea, zein emakumeei eta euren kargu diren adin gabekoei arreta eskaintzea helburu gisa jasotzen diren arren, praktikan eta ia hamabost urteko ibilbidean neurri horien benetako garapena berrikusita, lege honek izan duen eta izaten ari den **garapena ia erabat penala** dela ikusten da.

Modu horretan esan genezake legea ez dela izan emakumeen eskubideak bermatzeko salaketa eskatzen duten prozesu penalik gabeko bestelako neurriak aplikatzeko benetako tresna baliagarri bat. Horrela, egun, **eskubide horiek zuzenean epai kondenatzaile bati edo babes judizialeko agindu bati lotuak jarraitzen dute** neurri handi batean.

**Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Paktua**, indarkeria matxista erauzteko ahaleginak batzeko tresna gisa, hainbat talde parlamentariok eta beste erakunde batzuek berretsia izan zen 2017an. Paktu horrek, genero indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen eskubideen bermearen inguruan nolabaiteko aurrerapenak jasotzen ditu, prozesu penal baten beharrik gabe. Baita adin txikikoen babeserako gaietan ere, tratu txarren egile den aitari zaintza partekatua ukatzeari, bisiten erregimena eteteari eta adin gabekoak kartzelara bisitan joatea debekatzeari buruzko neurriekin. Paktu hori aurrekontuetan murrizketa handiarekin jarri zen martxan, berau abiatzeko hasiera batean esleitutako milioien % 50 baino gehiagokoa, neurri horiei ematen zaien lehenetsun politikoaren argigarri.

Aldaketa horiek, ordea, ez dira orain arte gauzatuak izan, eta gainera, mugimendu eta antolakunde feministek ez nahikotzat jo dute Estatu Paktua, benetan betetzeko aurrekontu bermeak falta direlako, egiturazko ikuspegirik ez dagoelako eta horren ondorioz, matxismoaren prebentziorako eta erauzketarako bideratutako berdintasun politikek dituzten gabeziengatik. Orobat, bizirik atera diren emakumeen independentzia ekonomikoa bermatzeko neurrietan ahulguneak identifikatzen dira eta honek ez du indarkerien kontzeptu marko bat txertatzen 1/2004 legean jasotakoa gaingidutako duena, hortaz, indarkeria mota asko oraindik ere aitortu gabe daude.

1/2004 legegari dagokionez, **El Salvadorko LIEV**ak zabaltasun handiagoz jasotzen ditu zigor prozesuei gailenduko zaizkien jardun neurriak, indarkeriaren prebentzioari, hautemateari, arretari eta erauzketari lotutakoak. Horrek, gainera, **ikerketa, datuen sistematizazioa eta indarkeria erauzteko politiken eragina ebaluatzea bezalako arloak garatzen ditu**. Zalantzarik gabe salvadortar legearen indarguneztat hartu behar diren funtsezko kontuak dira eta, hala ere, legearen azterketa sakonago bat beharrezkoa izango litzateke, legearen aplikazio urteen atzera begirakoa eginda neurri horien garapenak zertan datzan benetan ikusi ahal izateko.

Euskal Erkidegoaren kasuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea da euskal administrazio publikoaren betebeharrak ezartzen dituenak, emakume eta gizonen aukera eta tratu berdintasuna bultzatzeko, bai eta emakumeen autonomia sustatzeko eta maila sozial, ekonomikoa eta politikoa indartzeko ere. Horrek barne hartzen du udal, foru eta erkidegoan plan eta programak sortzea, ezartzea eta jarraipena egitea.

1/2004 Legearen beste gabeziarik bat biktimen erreparazioa emakumeentzat indarkeriarik gabeko bizitarako eskubidearen bermerako ezinbesteko eremu bezala ez hartzearekin lotuta dago. Lege horrek, Prozedura Kriminalaren Legearekin lotuta, zailtasunez lortzen du biktimen senideei kalte-ordain ekonomikoan neurriak ezartzea, zeintzuek ez dioten beti biktimak dituen behar eta eskaerei erantzuten; trafiko istripuetako kalte-ordainetan ezarritako baremoa ezarrita, gertaeren nahitasunarengatik igoera txiki batekin, kontuan izan gabe indarkeria matxista delituak oso bestelakoak direla, hain zuen ere, bere nahitasunagatik.

Kolonbiako 1257 Legearen jarduteko eremuekin lotuta, hezkuntza Ministerioak egiturazko erreforma bat aurrera eraman ez izana azpimarratzen da, indarkeriari txikitatik aurre hartzeko benetako aukera emango duena eta erakundeetan emakumeek jasaten dituzten indarkerien aurrean erantzukizuna sortuko duena.



Horri erregelamenduzko dekretuen ezarpen eza gehitzen zaio, Osasun, Komunikabide eta Hezkuntza ministerioek ez baitituzte euren eginbeharrak martxan jarri, eta, azken horren kasuan, hezkuntza zentroek indarkeria mota horiek artatzeko protokolo bidez txerta ditzaten, ez da legeak derrigortzen dituen sexu indarkeriaren gaineko xedapenen ezarpena landu.

Lan eremuan, 1257 legeak indarkeriaren biktima diren emakumeak kontratatzeo sustagarri bat jasozten du, hori egiten duten pertsona edo enpresei zerga beharpena egitearen bitartez.

Lege horrek indarkeriaren biktima diren emakumeei eta beraien familia-nukleoari ostatu, elikadura, garraio eta osasun arretan datzan arreta neurriak badirela jasotzen duen arren, horiek gabezia handiak dituzte, indarkeria katetik ateratzea lortzeko oztopo handia izanda.

Nabarmendu behar da 2018ra arte, Fiskaltzak 1257 Legearen markoan 812 funtzionario gaitu dituela, besteren artean, genero eta feminizidio ikuspegiarekin salaketak jasotzeko moduen gaineko programekin. Polizia Nazionalak, bere aldetik, aurten 3.530 poliariaren entrenamendua abiatu du, genero izaeragatik biktima diren emakumeen prebentzio, babes, arreta eta justiziarako sarbidean.

## Indarkeriaren jatorria aztertutako legeen arabera

Bi legeak aitortzen dute indarkeriaren jatorria **emakume eta gizonen artean dagoen desberdintasun eta botere harremanetan**, berau izanda horien adierazpen gordinena eta eremu pribatua gaudituta.

Hala ere, El Salvadorko legean artikulua bat eskaintzen zaio botere harremanen ondorioz emakumeek gizonen aldean duten desabantaila posizioa berariaz azpimarratzeari, horiek pertsona batek edo batzuek beste baten edo batzuen gainean duten asimetriak, nagusitasunak eta kontrolak ezaugarritutakoak bezala hartuta.

Lege horrek, era berean, **konfiantzako harremanak** zehazten ditu, bi pertsona edo gehiagoren artean uesteko leialtasunean, sinesgarritasunean, zintotasunean eta segurtasunean ezartzen dena. Botere harremanetan edo konfiantzako harremanetan desberdintasunak irauin dezake sortu zeneko lotura amaitu denean ere, dena delakoa izanda harreman hori mantentzeko eremua.

Gainera, espainiar legeak indarkeriari buruz egiten duen definizioz abalena legearen helburuak jasotzen duen ikuspegi murriztarekin kontrajarrira dago, zeinak eragiteko **eremua bikote edo bikote ohi harremanera** mugatzen duen jarraian jasotzen dugun bezala.

## Indarkeria eta delituen tipifikazioa.

Aitortzen diren indarkeria motekin lotuta, aurreko atalean aipatzen den bezala, 1/2004 Legeak bere jardute eremua **indarkeria fisiko eta psikologikoko ekintza orotara mugatzen du**, euren **bikote edo bikote ohiak** egindakoak direnak, sexu askatasunaren aurkako erasoak, hertsatzeak edo arbitrarioki askatasuna kentzea barne.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 euskal Legeak (*dokumentu hau idazten ari zen bitartean legea aldatzeko zirriborro bat aurkeztu da*) definizio zabalago bat eta nazioarteko estandarrekin bat egiten duena jasotzen du, zeinaren arabera «sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan».

Hala ere, delituen tipifikazioa eta justizia «espezializatuko» sistemaren egituratzea Espainiar Estatuaren eskumena da eta aipatutako 1/2004 Legean ezarrita dago, esaten genuen bezala, bikote eta bikote ohiaren eremutik kanpo geratzen diren indarkeria motak ezkatuta egiten ditu.

Horrek estatistika ofizialen eta mugimendu feministak eta jendarte zibileko antolakundeek jasotzen dituzten datuen artean alde handia egotea dakar, arazoaren benetako handitasunari neurria hartzea eta indarkeria matxistaren esparruan zalantzarik gabe ematen diren bestelako indarkeria moten aurka ekitea eragotzita.

El Salvadorko LIEVak ondoko indarkeria **tipologiak eta modalitateak** aitortu eta zehazten ditu, erantzun bat eman nahi diena:

- a) **Indarkeria Ekonomikoa:** Emakumearen biziraupen ekonomikoari eragiten dion erasotzailearen ekintza edo omisio oro, zeina emakumearen diru-sarrera ekonomikoak mugatu, kontrolatu edo galaraztera bideratutako ekintzen bidez adierazten den.
- b) **Indarkeria Feminizida:** Emakumeen aurkako genero indarkeriaren muturreko era, giza eskubideen bortxaketaren emaitza, eremu publiko eta pribatuan, zigorgabetasun soziala edo Estatukoak dakarren jarrera misoginoen baturak osatutako, feminizidioan edo emakumeen indarkeriazko bestelako heriotzan buka daitekeena.
- c) **Indarkeria Fisikoa:** Zuzenean edo zeharka, emakumearen kontra mina edo sufrimendua sortzeko bideratuta dagoen jarrera oro, lesio fisikoa edo mina sortzea edo sortzeko arriskua izanda emaitza, bere ezkontide denak edo izan denak edo berari antzeko harremanarekin lotua dagoenak edo egon denak egindakoa, nahiz eta elkarrekin ez bizi. Era berean, emakumearen kontrako indarkeria fisiko-ko ekintzatzat joko dira familia, jendarte edo lan eremuan erasotzaileak egindakoa.
- d) **Indarkeria Psikosoziala eta Emozionala:** Zuzenean edo zeharka min emozionala, autoestimua gutxitzea, emakumearen garapen osasuntsua kaltetu edo nahas dezakeen jarrera oro, izan ahozkoa edo ez ahozkoa, emakumearen balio gutxitzea edo sufrimendua sortzen duena; mehatxu, obediencia edo sumisio eskaera; hertsatzearen, errua bere gain botatzearen edo bere askatasun eremua mugatzearen bitartez, eta bere buruaren kontzeptua, pertsona bezala duen balioa, munduaren ikuspegia edo norberaren gaitasun afektiboen desitxuratzea ondorio duen edozein osasun nahaste, edozein harreman motatan ematen dena.
- e) **Ondare Indarkeria:** Emakumearen ondarea libreki erabiltzeko aukerari eragiten dioten ekintza, omisio edo jarrerak dira; ondasun komunei edo propioei eragindako kalteak barne, eraldatze, lapurreta, suntsitze, distrakzio, kalte, galera, mugatze edota gauzen, dokumentu pertsonalen, ondasunen, balio eta ondasun eskubideen atxikitzea. Ondorioz, baliogabeak izango dira ostentze ekintzak, ondasun higigarri edo higiezinen besterentze simulazioak; ezkontideen arteko ondare erregimena dena delakoa izanda, ezkontza gabeko batasunekoa barne.
- f) **Sexu Indarkeria:** Emakumeak bere bizitza sexuala libreki erabakitzeko duen eskubidea mehatxatu edo urratzen duen jarrera oro, sexu bizitzaren barruan ez da soilik sexu harremana bera sartzen baizik eta sexu kontaktu edo jarduera mota guztiak, genitalen baitakoak edo ez, kontuan hartu gabe erasotzaileak biktima den emakumearekin inolako harremanik duen edo ez, ezkon harremana izan, bikote harremana, soziala, lanekoa, afektiboa edo senidetasuna.
- g) **Indarkeria Sinbolikoa:** Pertsonen arteko harreman sozialetan mendekotasun, desberdintasun eta diskriminazio harremanak transmititzen eta berregiten dituzten mezu, balio, ikono edo ikurrak, emakumeak jendartean duen mendekotasuna natural bihurtzen dutenak.

Gainera, indarkeria egileztat jotzen ditu harreman afektiboetatik kanpoko bestelako eragileak. Ondoko **indarkeria motak** LEIVen jasota daudenak dira:

- a) **Komunitate Indarkeria:** Ekintza individual edo kolektiboen bitartez, emakumearen oinarrizko eskubideak urratzen eta berai iraintzeari, diskriminatzeari, marjinatzeari edo baztertzeari bide ematen dioten gehiegikeriazko ekintza edo omisio oro.
- b) **Erakunde Indarkeria:** Diskriminatzea edo emakumeen oinarrizko askatasun eta eskubideak dilata-tu, oztopatu edo horien gozatzea edo gauzatzea eragozte helburu duen edozein langile publikoren gehiegikeriazko ekintza edo omisio oro; baita lege honetan zehaztuta dauden indarkeria adieraz-pen, mota eta moduen aurrean neurriak hartzea, artatzea, ikertzea, zigortzea eta erauztea helburu duten politika publikoez gozatzeko emakumeen aukerak oztopatu nahi edo oztopatzen dituztenak ere.

- c) **Lan Indarkeria:** Emakumeen kontrako ekintza edo omisioak, lantoki publiko edo pribatuetan modu errepikatuan eta denboran zehar mantentzen direnak, emakumearen osotasunaren, duintasun pertsonal eta profesionalaren kontra egiten duten eraso fisiko edo psikologikoak, enplegua izatea, mailaz igotzea edo lanean egonkortzea oztopatzen dutenak, edo lan berdinagatik soldata bera izateko eskubidea urratzen dutenak.

Salvador tar legearen kasuan, indarkerien tipifikazioak, emakumeentzako indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidearen kontra egiten duten delitu berriak aitortzea ekarri du.

Emakume bati heriotza eragitearekin lotutako delitu bezala **feminizidioa** nabarmentzen da, emakume izateagatik gorrotoa edo erdeinua zio, heriotzaren aurrean indarkeria gertakariren bat egon bada, egilea biktimaren zaurgarritasunaz aprobetxatu baldin bada edo generoan oinarritutako botere harreman desberdinek eragindako nagusitasunean.

Gainera, delitu hori larriagotua dela deritzo langile publiko batek egindakoa denean, bi pertsonen edo gehiagok eragin dutenean, biktimaren familiakoren baten aurrean egina bada, berau adin gabekoa denean, nagusia edo nolabaiteko urritasuna baldin badu, edo egilea konfiantza harremanetik sortutako nagusitasunaz gailentzen bada.

Delitutzat joko dira, era berean, justiziara jotzea oztopatzea, hartaratutako edo lagundutako suizidio feminizida, Deberes de Asistencia Economica delakoa ez betetzea, ondasunen lapurreta, familiako jarduera ekonomikoko baliabideak lapurtzea.

Emakumeen kontrako indarkeriaren bestelako adierazpenak, hala nola, gorrotozko edo erdeinuzko edukiak sortzea, argitaratzea, hedatzea edo transmititzea; emakumeak kiziltzea helburu duten adierazpenak erabiltzea; lan, hezkuntza, komunitate, parte hartze publiko edo hiritarren barruan askotariko diskriminazio moduak; formakuntza akademikoko prozesuetan, parte hartze politikoko, lanean txertatzeko edo osasun arretako prozesuetan parte hartzea oztopatzea, osotasun fisikoa edo emozionala berehalako arriskuan jartzea eta pornografia hedatzea ere LEIV legearen arabera delitutzat jotzen dira.

Kolonbiako 2008ko 1257 Legeak emakumeen kontrako indarkeriatzat jotzen ditu emakume izateagatik heriotza, mina edo sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko, ekonomiko edo ondarekoa eragiten duen edozein ekintza edo omisio, hala nola ekintza horien mehatxu, gogorkeria edo askatasuna arbitrarioki kentzea, eremu publikoan edo pribatuan egiten dela ere. Gainera, indarkeria hori egiten den eremutzat hartzen ditu familia barnekoa, pertsonen artekoa, delitu direnak, eta lanekoa.

Bestelako indarkeria moten tipifikazioarekin lotuta, 1257 legearen markotik harago, Kolonbiaren kasuan 2015eko 1761 legea nabarmendu behar da, feminizidioa tipifikatzen duena, gatazka armatuaren testuinguruko sexu indarkeriaren gaineko legea eta eragile kimikoekin egindako erasoak tipifikatzen dituena, non nagusiki emakumeak diren biktimak.

## Biktimaren babesa.

Biktimaren babesarekin lotuta, 1/2004 Legeak biktima eta lege-hauslearen arteko kontaktua saihesteko eskubidea jasotzen du, biktimari aitortzea ahalik eta gutxienetan hartzea eta kasu bakoitzean behar berezietako zehaztapenak indibidualki ebaluatzea.

LEIVak, gainera, ahal den neurrian, biktimen eskubideetan, emakumeen giza eskubideetan, genero ikuspegian eta genero indarkeriaren prebentzioan aditu eta trebatuak diren **sexu bereko pertsonen** artatuak izateko eskubidea jasotzen du, toki irisgarrietan eta pribatutasuna, segurtasuna eta erosotasuna bermatzen duten tokietan.

Horrezaz gain, argi adierazten du aitortza babes eta zaintza baldintza berezietan emateko eskubidea; hala nola **aurre rapen frogaren figura erabiltzea** baita **epaiketan deklaratzeko egoera emozionala kontuan hartzea** ere, eta berau bakarka egitea.

Kolonbiako 1257 Legeak ondoko eskubide hauek jasotzen ditu:

- Agintariak **indarkeriatzat jotako ekintzaren jakitun direnetik, orientazio, aholkularitza juridiko eta arreta tekniko legal** doakoa, berehalakoa eta espezializatua jasotzeko eskubidea.
- Sexu indarkeria kasuetan **azterketa mediku-legalak egiteko baimen informatua emateko** eta, zerbitzuak eskaintzen dituen aukeren barruan, horiek egiteko profesionalaren sexua aukeratzeko eskubidea.
- Edozein arreta esparrutan eta prozesu administratibo, judicial edo bestelakoetan **erasotzailearen aurrez aurre jarri ahal den edo ez borondatez erabakitze eskubidea**.

## ZUZENBIDE SISTEMA

Legeriaz gain, zuzenbide sistema, hark eskaintzen dituen aukerak eta ia beti dituen oztopoak, ezinbestekoa da berau aztertzea ere, biktima izan diren emakumeentzako justizia eta erreparazioa bilatzean parte hartzen duten askotariko eremuak ulertzeko, eta mundu guztian emakumeentzako indarkeria matxistarik gabeko jendarteetarantz gerturatzeko.

## ESPAINIAKO ESTATUA

Espainiako Estatuaren kasuan, 1/2004 legean genero indarkerian espezializatutako epaitegien sorrera aurreikusi zen. Aipatutako legea martxan jarri zenetik ia hamabost urte ondoren, asko dira epaitegi horiek dituzten ahulguneak.

Espainiar zuzenbide sistemak «ikusgarri» diren indarkeria motei erantzuten dien mekanismoak egituratzen ditu, indarrean dagoen legearen barruan «zuzeneko» bezala sailkatzen direnak. Hala ere, agerian uzten du ustez hain ikusgarriak ez diren eta zalantzarik gabe egiturazkoak diren bestelako indarkeriei aurre egiteko bere ezintasuna, eta halaber, emakumeen bizitzetan ondorio larriak dituztenak.

Aurreko atalean jasotzen den bezala, 1/2004 Lege Organikoak, Genero indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzkoak, indarkeria matxistei aurre egiteko jasotzen dituen neurriak nagusiki zigor arlokoak direla da abiapuntua. Horrek dakar **indarkeria egoera bati aurre egin behar dioten emakumeei eman ahal zaizkien eskubide asko epai prozesuei lotuak egotea**, gauzak horrela, salaketa, eskubide horiek izateko bide bakar bihurtzen da.

Gaur egun eta zigor sistemaren berezko ezaugarriak kontuan izanda, auzibidea delitua zehaztera eta haren alderdi erantzulea identifikatzera mugatzen da, biktimaren eskaerak edota beharrak askotan prozesutik kanpo dagoen atal bezala geratuta, bere testigu funtzioak soilik du interesa. Gainera, zigor-arloko prozesu bat irekitzeak suposatzen duenaren gainean **emakumeek informazio egokia ez jasotzea ohikoa da**, arduraz eta behar besteko laguntzaz salaketaren bidea hartu edo ez erabaki ahal izateko.

Emakumearen aurkako indarkerian espezializatutako Epaitegiak azkar samar epaitu eta kondenatzen dituzte genero indarkeria legeriaren barruan ematen diren delituak (bikotea edo bikote ohia), batez ere egitateak frogatzean zailtasun handirik erakusten ez dutenean eta beraz, ikerketa bat irekitzea beharrezkoa ez denean.

Epaitegi horiek genero indarkeriaren ondorio diren neurri zibilak ere betearzten dituzte, dibortzio edo zaintza kasuak adibidez.



Askotan, azkenean epaituak diren erasoek salaketa eragin duten azken ekintza ordezkatzen dute. Horiek, ordea, normalean **etengabeko indarkeria** testuinguru batean gertatzen dira (kontrol iraunkorra, menderatze sistematikoa, xantxia, manipulazioa...) denboran ohikotasunez eginda, askotan zalantzan jarria dena, frogatzeko zailtasunak dituena eta, hortaz, oso gutxitan epaitua eta zigortua.

Mugarik Gabek egindako ikerketak, Euskadin eta Nafarroan<sup>2</sup> bost urteko epealdian emandako 33 feminizidoren epaiak aztertzen zituenak, erakusten digu eraildako emakume askok ohiko tratu txarrak bizi izan zituztela eta, hala ere, kasu bakarrak zeukala ohiko tratu txarreatik zigorra gehituta. Datu horrek erakusten digu ezinbestekoa dela delitua jazartzeko aukera emango duten mekanismoak garatzea, **emakumei lehen momentutik sinesgarritasuna emanda**.

Zuzenbide sisteman indarkeria matxista erauzteko beste muga bat erasoei kasu isolatu bezala ekitea da, sistemaren egiturazko arazo bezala hartu beharrean. Horrek, beste gauzen artean, **indarkeria matxistaren berariazko berezitasunak** kontuan ez hartzea dakar, hala nola, erasotzailea ingurune hurbilekoa deanean salaketa jartzeko oztopoak, indarkeria zikloak, kontzientzia hartzeko prozesuen ezaugarriak, etab.

Emakumeen segurtasuna bermatzeko neurriekin lotuta, zenbait kasutan urrutiratze aginduak eraginkorrak izan badaitezke ere, horiek ez diete beti emakumeen eskaera eta beharrei erantzuten eta, hala ere, ohikoa da neurri judizialak ia automatikoki ezartzea kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izan gabe.

Genero indarkeria kasuetan egungo legeak aldean arteko desberdintasunezko harremana aitortzen duen arren eta, beraz, bitartekaritza debekatu, «adostasunezko» deitzen den mekanismo judizial bat existitzen da, askotan kontuan hartuak ez direnaren sententzia areagotzen duena emakumeengan. Aipatutako mekanismo horrek, erasotzaileak egitateak aitortzen dituen kasuetan eta zigorrarekin etsitzen denean, biktima frogak aurkezteko salbuetsia izatea ahalbidetzen du eta, haatik, automatikoki zigorraren gutxitzea dakar eta epaiketa bukatzea, beste behin ere emakumeen eskaerak eta beharrak asegabe geratuta.

Ia automatikoki berriz biktima bihurtzeko faktore horiek eta beste batzuk, hala nola, lekukotasuna zalantzan jartzea, biktimak estigmatizatzea, epaitegietan erasotzailearekin topo egin behar izatea edo prozesu osoan informazio eta laguntasan egokiaren falta, **epaitegietako langileen kalitatezko espezializazioan formakuntza falta** izatearekin zuzenean lotuta daude.

Horrek, askotan, emakumeek prozesuan sartzean baino okerrago atera direla sentitzea eragiten du, **salaketaren bidea ez dela asebetegarria** onduzotatuta eta zenbait kasutan salaketa gabeko dibortzioa bezalako bideak hartuta, arlo ekonomikoan ere galera izatea esan nahi duena.

## EL SALVADOR

Ley Especial Integral para una Vida Libre de Violencia para las Mujeres legea 2012ko urtarrilean sartu zen indarrean eta jada aurreko atalean aztertu da.

Hasieran ohiko auzitegiak ziren LELVari jarraipena egiten ziotenak, kasu askotan **legearen interpretazio subjektibo eta patriarkala** egiten zuten epaileekin, horregatik, epaitegi espezializatuak martxan jartzea beharrezko ikusi zen.

Auzitegi espezializatu osatzeko egin zen lehen lehiaketan kontuan hartu ziren giza eskubideetan izangaien formakuntza eta ez diskriminatze irizpidea. Gainera, izangaiaren jarrera ezagutzeko ebaluazio psikologikoak eta gizarte laneko txostenak, giza eskubideen prokuradore-bulegoan zigor-aurrekaririk ez izatea eta aldeekiko loturen ingurukoak egin ziren.

2 Ikerketa osoa hemen: [https://www.mugarikgabe.org/wp-content/uploads/2019/03/femicidio\\_euskadi\\_navarra\\_2010\\_2015\\_es.pdf](https://www.mugarikgabe.org/wp-content/uploads/2019/03/femicidio_euskadi_navarra_2010_2015_es.pdf)

Epailen kontseiluak izangaien lehen hautaketa egin zuen irizpide horien arabera eta ostean, Justiziako Gorte Gorenak beste baremazio bat egin zuen legeriari buruzko galderez gain ibilbidearen in-gurukoak ere agertzen ziren azterketa baten bitartez. Horrela, 8 epaile eta 3 magistratu hautatu ziren. Lehenik eta behin, emakumeak bake-epaitegira jotzen dute, non askotan genero gaietan formakuntza jaso ez duten epaileekin topo egiten duten lehenengoz. Behin bertan, instrukzioko epaitegira bideratzen dituzte, espezializatutako auzibidea hasten den tokira.



El Salvadorko Epailen Kontseilu Nazionalean topaketa (Consejo Nacional de Judicatura). 2018ko iraila

Bake epailen formakuntza faltaren aurrean, Epailen kontseiluak erdiguneko epaileekin formakuntza prozesu bat jarri zuen martxan, trebatzea eta tutoretza barne dituen, gune guztietara zabaltzeko ideiarekin.

Biktimen erreparazioari lotuta, berau zailtasunekin egiten bada ere, badago aukera eta zenbaitetan epaiek neurri erreparatzaileak jasotzen dituzte, horiek emakumeekin lankidetzan zehaztea gomendagarria izanda.

2016ra arte 524 emakumeren hilketa izan dituen herrialde batean eta 2018ko irailera arte 268 feminizidio erregistratu direnean, zuzenbidearen erronkak ez dira makalak:

- Profesionalen arteko egituratzea emakumeen beharrei erantzuteko.
- Auzitegi Medikuntzako txostenetan sakontzea genero ikuspegitik, genero indarkeria gaietan informazio gehiago jaso dezaten.
- Prozesu guztian laguntzarako irudi falta eta harrera etxeentzako baliabide falta.
- Babes neurrien jarraipena egitea benetan emakumeen bizitzetan hobekuntza bat berma dezaten.
- Biktimak asebete dituen erreparazio aukeretan aurrera egiten jarraitzea, kalte-ordain ekonomi-koetatik eta erasotzaileak zigortzetik harago.

## AUZITEGIKO GIZARTE LANETIK ALTERNATIBAK

«Justizia sistema legezkoa da, baina ez du justiziarik eskaintzen». (Marta Simón Gil)



El Salvadorko Epaileen Kontseilu Nazionalean topaketa (Consejo Nacional de Judicatura). 2018ko iraila

Aurreko atalak jasotzen duen bezala, hainbat dira zuzenbide sistemak genero indarkeriaren biktima diren emakumeen itxaropenak eta eskaerak ez betetzea eragiten duten alderdiak.

Marta Simón Gilek, Gasteizko epaitegietako Auzitegiako Gizarte Langileak, arlo horretan aurrera eraman daitekeen lan estrategikoan sakondu du, **bizirik atera diren emakumeen eskaerak kontuan hartuko dituzten alternatibetan aurrera egiteko, baita zuzenbide sistemaren baitan erreparaziorako aukeretan ere**. 2018ko irailean El Salvadorren egindako zenbait topaketatan azaldu zizkigun:

Auzitegiako Gizarte Lana eremu juridikoan Gizarte Lanaren aplikazioa da, epaile baten aginduzko aditu sozialaren txostena egitearen eta diagnostikoak garatzearen bidez, zuzenbide prozesuan frogabide gisa. EAEn lan hori Auzitegi Balorazio Integraleko Unitateen bitartez egiten da; abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren, Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzkoaren bigarren xedapen gehigarrian agertzen denari jarraituz 2009an EAE sortu zirenak, jarraian irakur daitekeen bezala (itzulpena gurea da):

«Gobernuak eta Autonomia Erkidegoek, justizia eskumenak bere egin dituztenek, bakoitzari dagokion eremuan auzitegi zerbitzuak antolatuko dituzte auzitegi balorazio integraleko unitateak izango dituztenak, genero indarkeria kasuetan jarduteko protokolo global eta osoak diseinatzeko ardura izango dutenak».

Balorazio Unitateek izaera soziofamiliarra, psikologikoa eta medikua duen informazio osoa koordinatu eta barne hartzen dute, jakintza-arlo anitzeko talde baten balorazio bakarraren bitartez, psikologiako, psikiatrian espezializatutako medikuntzako eta gizarte langintzako profesionalen osatutakoa. Txosten horiek 1/2004 Legeak ezartzen duen lege-esparruaren barruan ekite osorako azterketa tresna osagarriak izatea ahalbidetzen dute, hau da, bikote eta bikote ohi harremanetan gertatzen diren genero indarkeria kasu horiek.

Unitate horiek ez dute kasu guztiei erantzuteko ahalmenik eta euren azterketa pean egon behar direla uste da indarkeria psikologikoa gailen diren kasuak, luzaroko indarkeria jarraitua, noizean behingo indarkeria larria, auzitegi-medikuak esku hartzea beharrezkoa ikusten dituen kasuak eta, irizpide hauekin bat ez etorrita ere Agintari Judizialak egoki deritzonak.

Auzitegiko Gizarte Lanak pertsonaren eta bere ingurunearen gaineko **ikerketa egiteko aukera ematen du, pertsonak bizi dituen eta eragiten dioten askotariko sistemen esplorazioaren bitartez, epai erabakiak hartzeko azterketa sozialeko elementu kualitatiboak emanda**. Finean, euren ingurunean pertsonen garapen osoa ahalbidetzen duten edo eragozten duten baldintzen ikerketa ahalbidetzen du (Simón Marta, 2012).

Irizpide horien arabera, auzitegiko esku hartzeak ondoko aspektu hauek ebaluatzen ditu:

- Kultura patriarkalaren parametroetatik gauzaturako indarkeria dagoen edo ez.
- Inplikaturako pertsonan kultura patriarkalak sortutako eraginaren ebaluazioa.
- Indarkeriazko gertakariaren abiapuntu kulturala, horren aurrean dagoen diskurtso soziala.
- Ebaluatutako pertsonen identitate eta adierazpen kultural zehatzagoak.
- Bere testuinguru sozialetan ordura arte jasotako erantzuna.
- Sexuaren arabera, gizonari eta emakumeari sozialki ezarri zaizkion rol, balio eta jokaera arauak.
- Pertsonaren ingurune sozialaren analisia, bere laguntza sare formal eta informalak eta horiekiko elkarrekintza indarkeriazko gertakariaren aurretik eta ondoren.
- Kontrolzko eta boterezko indarkeriaren eraginpean egoteari lotutako zaurgarritasun soziala, aurrez pertsonak bazituen zaurgarritasun sozialeko faktoreak eta indarkeriaren eraginpean jartzeak aktibatu edo areagotu dituenak ezberdinduta. Indarkeriazko ekintzaren inguruan familiaren kontakteten azterketa.
- Izaera sozialeko ondorioen ebaluazioa tratamendu sozialerako.
- Pertsonaren jendarteratzea ebaluatzea, bere gaitasunen eta gainditze baliabideen, informazioa eskuratzeko aukeren eta parte hartze sozialaren mantentzean oinarrituta.
- Erasotzaileak, diagnostiko eta ibilbide soziala oinarri izanda, etorkizunean indarkeriazko jokaerak izateko dagoen arriskua baloratzea, gure lanbidearen berriazko ekarpena izango lirateke.

Ondorio sozialen ebaluazioari lotuta, Marta Simónek **Min Sozial gisa definitzen ditu biktima batek gertaera traumatiko baten ondorioz harreman familiar edo sozialetan esperimendututako eraginak**. Horiek, gertaerak baldintza sozial berrietan eta kaltetutako aldeak bertan duen posizioan duen oihartzunarekin lotuak daude, bere testuinguruari eta aurreko harreman sareari dagokionez. Modu honetan sailkatzen ditu:

- **Lesio soziala**, izaera sozio familiarreko zaurgarritasun soziala gertatzen denean, gertatutakoaren ondorioz biktima desabantaila sozial egoeran egongo baita, gutxienez, hiru hilabetetan.
- Irautea eta larritasuna garapen sozialeko sarearen galera modu kronikoan emango balitz; ondorioek bere laguntza sozialeko sarearekin duen elkarreraginean, bere harremanen etorkizuna bizi artean baldintzatuta, horietako batzuekin erabateko apurketa iraukorra ekartzen duenean, **ondorio soziala** deritzen.



Marta Simónek Auzitegiko Gizarte Lanetik erreparazio eta eragindako minaren leheneratze neurriak zehazteko aurrera eraman daitezkeen aukeretan sakondu du, ohiko dimentsio fisiko eta psikologikoak gaindituko dituen, biktimaren beharren eta eskaeren dimentsio subjektiboa txertatuta eta genero indarkeria kasuen berezitasunak kontuan hartuko dituztenak.

Horrek auzitegiko gizarte langilearen berariazko funtzioak gainditzea dakar, aditu txostena egiteko epai agindu bati erantzutera mugatuak; kasu askotan, alde bakoitzeko defentsek hala eskatuta, gertaeren egiazkotasuna frogatzera mugatuta.

Horrela, **emakumeen eskaerak kontuan izatetik** abiatzen den proposamen batetara pasako ginateteke eta epaia zalantzarik gabe baldintzatu dezakeena honako alderdiak kontuan hartuta:

- Zuzenbide sistemaren markoan emakumeen eskaerak askotarikoak dira eta nabarmen ezberdinak bestelako delituetako eskaeren aldean.
- Berezitasun horiek, nagusiki, zaugarritasun sozialeko egoerarekin zerikusia dute, sare sozio-afektiboan eragindako minari lotuta eta beronek sostengu eta laguntza funtzioa betetzea mugatzen duena (materiala, emozionala...).
- Ezinbestekoa da genero indarkeriazko egoerei aurre egiten dieten emakumeek duten **zaugarritasun juridikoa aitortzea**, ordenamendu juridikoak aitortutako eskubideak osotasunez gauzatzeko zailtasun bereziak aurkituta.
- Beharrezkoa da, dimentsio fisikoaz eta psikologikoaz harago, **jendarte ehuna** eta eguneroko bizitzaren sostengu diren alderdiekin zerikusia duten horien eta jasandako indarkeriagatik kaltetuak izan direnen lehengoratzeko lantzea, aisia, lana, harreman afektiboak, parte hartze soziala, ekonomia, etab.
- Prozesuaren inguruko erabakiak ondorio guztien gaineko informazio guztiarekin hartu behar dira eta auzibidearen zailtasun eta oztopo guztiak argi izanda. **Emakumeekin errealistak izatea** ezinbestekoa da baita zuzenbide sistemaren barruan bete ezingo diren itxaropenik ez sortzea ere.
- Aurreko osagaiak beharrezkoak dira emakume bakoitzaren beharrei erantzungo dien lan egitasmo bat adosteko, ongizatean eta justizia sozialean lurralde bakoitzean dauden baliabide soziosanitarioekin koordinatuta (emakumeen elkarteak, zerbitzu sozialak, osasun zerbitzuak...).

## ONDORIO OROKORRAK

- Zuzenbide sistemak, kasu askotan, ez ditu asebetetzen bide hau aukeratzen duten emakumeen behar eta eskaerak.
- **Auzibidea ezagutzea** eta salatzeak dakarrenaz **informatuta egotea** ezinbestekoa da **dagozkion erabakiak hartzeko**.
- **Genero eta feminista ikuspegia** duen formakuntza, indarkeria matxistaren berezitasunetan eta emakumeen bizitzetan duen eraginean garbia ezinbestekoa da justiziako langileentzat (epaileak, fiskalak, ofiziozko txandak...), emakumeen askotariko beharrak kontuan hartuta eta zalantzan jarri gabe, berriz biktima bihurtuko ez dituen erantzun bat eman ahal izateko.
- Zuzenbide sistemaren eta orokorrean jendartearen aldetik emakumeen ahotsak zalantzan jartzearen aurrean, lekukotasun horien sinesgarritasuna aldarrikatzeko **jendarte zibiletik sortzen diren**

**erantzunek erreparazioarako eta aitortza sozialerako** indar garrantzitsua dute, esaterako, «nik si-nisten zaitut» lema ezagunarekin egindako kanpainak edo bizirik atera diren emakumeen lekukotasunak jasotzen dituzten auzitegi sinbolikoak.

- **Bizirik atera diren emakumeen antolakundeek** erreparazio prozesuetan funtzio garrantzitsu bat betetzen dute, ezinbestekoak direnak hala erakundeetatik nola mugimendu feministatik laguntzen jarraitzea.
- **Bide penalari alternatiba aukeren gainean hausnartu behar dugu, zigor diskurtsoak gaindituko dituztenak** eta indarkeria matxistaren biktima diren eta bizirik atera diren **emakumeen erreparazioarako benetako beharrei erantzungo dietenak.**
- Beharrezkoa da epaitegi espezializatuatarantz aurrera egitea, **emakume eta gizonen arteko ezberdintasunezko harremanen aitortzatik** abiatuko direnak eta emakumeen bizipenen subjektibotasunei bide emango dieten mekanismo judizialak txertatuko dituztenak, eta hain ikusgarriak ez diren indarkeriak aitortzeko aukera emango dutenak, indarkeria psikologikoa kasu.
- Interesgarria da justizia penalari eta patriarkalari alternatibak esploratzen eta horietan sakontzen jarraitzea, esaterako justizia errestitutibo baterako aukeretan sakontzea, bitartekaritza gaindituko duena eta emakumeen segurtasuna ere bermatuko duena.
- Beharrezkoa dugu indarkeria matxistaren kontzeptu zabalago bat aintzat hartuko duten legeetarantz aurrera egitea, bikote edo bikote ohi harremanetik harago bestelako indarkeria motak aitortuak izango direnak, aurrekontuko diru-izendapen bati lotuak egon eta ezarketa bermatu eta adierazpen asmo hutsetan geratuko ez direnak.

## EKITE INTEGRALA

Atal honetan, erakundeetako eragileen eta jendarte zibileko antolakundeen arteko egituratze esperientziak jaso nahi izan ditugu, bai eta indarkeria matxistaren biktima eta bizirik atera diren emakumeen arreta eta laguntza osorako esperientziak ere.

## JENDARTE ZIBILAREN ETA ERAKUNDEETAKO ERAGILEEN ARTEKO ARTIKULAZIO ESPERIENTZIAK

### SISTEMA NACIONAL PARA LA IGUALDAD SUSTANTIVA

El Salvadorko kasuan, eta Ley de Igualdad, Equidad y Erradicación de la Discriminación contra las Mujeres (LIE) legearen 7. artikulua arabera, erakunde zuzentzailea Instituto Salvadoreño para el Desarrollo de la Mujer (aurrerantzean ISDEMU) deiturikoa da LIEren ezarpena eragiteko eta laguntzeko arduraduna.

Aurreko agindua betetzeko eta Estatuaren betebeharra izanda bere eskumenak gauzatzean garatutako politiketan, araubideetan, prozeduretan eta ekintzetan berdintasun, ekitate eta ez diskriminazioaren zeharkakotasun hatsarrea txertatzea, **ISDEMUK Sistema Nacional para la Igualdad Sustantiva** (aurrerantzean SNIS) **ezartzen du LIEren printzipio zuzentzaileen zeharkakotasuna ezartzea bermatzeko erakunde arteko koordinazio mekanismo gisa.**

ISDEMUk nazioko eta tokiko elkarteak deitzen ditu SNISeko Batzar Orokorreko parte izatera, erakundeetako titularrek edo ordezkariak osatzen duten gune politikoa, ondoko funtzio hauek dituen:

- a) SNISren saioetara bertaratzea eta horietan parte hartzea hitza eta botoa izanda.
- b) SNISren saioetan aurkezten diren gaiak ezagutzera eta horien gaineko iritzia ematea eta dagozkion konponbideak proposatzea.
- c) Batzorde betearazleari bideratzea, dagozkion eskuduntzei buruz SNISren akordioen betetzearen jarraipena egiteko.
- d) Urteko Plan Operatiboa onartzea.

Egun ISDEMUren parte dira estatuko 43 erakunde eta jendarte zibileko 3 antolakunde: La Colectiva Feminista, Méridas eta Movimiento de Mujeres Salvadoreño.



## MPV- MUJERES DE LA ZONA NORTE

San Salvadorko Ipar Gunean indarkeria egoeran dauden emakumeei arreta eta prebentzio osoko erakunde arteko eta sektore arteko Mahaia sortzeko ahaleginak, aurrerantzean MPV, USAIDren (United States Agency for International Development) laguntzarekin egin ziren, San Salvadorko Ipar Gunean indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta ibilbidea jasotzen zuen dokumentua egiten hasteko aholkularitza eman zuena eta talde lanaren inguruan eragileak trebatu zituen.

Dokumentu hori modu parte hartzailean egin zen MPVren parte diren eragileen artean. Hainbat fase-tan garatu, 2016ko abenduan burutu eta emakumeen antolakundeen laguntzari esker inprimatu ahal izan zen.

MPVtik aurrera eramaten diren ekintzak garatzean La Colectiva Feminista para el Desarrollo Local antolakundeak toki esanguratsua dauka. Hala ere, MPVren bilerak egiteko tokiak txandaka aldatzen dira eta guztien artean kudeatu.

Ondoko lema honekin «*Uniendo esfuerzos para una vida libre de violencias en San Salvador*» (San Salvadorren indarkeriarik gabeko bizitza baten alde ahaleginak batzen), MPV- Mujeres de la Zona Norte antolakundeak helburu estrategiko hauek ditu:

- MPV-Mujeres de la Zona Norteko kideak indartzea, emakumeei, haurrei eta nerabeei eragiten dien indarkeriari ekite integralerako jakintzetan eta trebetasunetan sendotzea.
- San Salvadorko ipar guneko erakundeetan eta komunitateetan arreta ibilbidearen aplikazioa sustatzea dokumentuaren zabalpenaren bitartez.
- San Salvadorko ipar gunean indarkeria egoeran dauden emakume, haur eta nerabeen arreta osoa bultzatzea.



Ilustración 7: Mesa Interinstitucional e Intersectorial de Prevención y Atención Integral a Mujeres en Situaciones de Violencia de la Zona Norte de San Salvador. 2018ko iraila

Era berean, mahaian orain arte izandako esperentziaren balantzea aurkezten digu AMIA gisa:

#### **INDARGUNEAK:**

- Taldearen erakunde arteko eta sektore arteko izaera.
- Arreta ibilbidearen dokumentua egitean parte hartzen duten jakintza-arloen aniztasuna.
- Denboran konprometitutako langileak. (Ezinbestekoa helburuetan aurrera egin). Horrelako dokumentuak egiteko mahaiko kide batzuk aurretiaz zuten ezagutza.
- Delegación de la Zona Norte de la PNC (Policía Nacional Civil) ordezkariaren inizatiba eta Erakunde arteko koordinazioa.

#### **AUKERAK:**

- Buruzagitzen laguntza.
- Lankidetzaren laguntza.
- Bileretarako toki egokia.
- Dokumentuaren bigarren argitalpena egiteko aukera.
- Dokumentuaren edizioan eta logoaren diseinuan lankidetzaz izatea lortu da.
- Herrialdeko beste udalerrietan eredu errepikatzeko aukera.
- Proiektuak burutzeko finantzazio ekonomikoa eta emakumeenganako indarkeriari neurriak hartzean inbertitzea.
- Zerbitzuak eskatzen dituzten emakumeen egoeraren arabera erakundearen arteko koordinazioa.
- Emakumeenganako indarkeria erazteko sustatzeko sentsibilizazioa.
- Emakumeei arreta espezializatua, kalitatezkoa eta berotasunezkoa, eskubide ikuspegiarekin, indarkeria betikotzen duten eredu kulturaletatik libre.

#### **AHULGUNEAK:**

- Ekintzen egitura eta kronograma falta.
- Gehiegizko lan karga.
- Dokumentua egiteko (berrikusteko) denborarekin arazoak.
- Dokumentua egiteko tresna eta teknika falta.



**MEHATXUAK:**

- Erakundeetan aurreikusi gabeko ekintzak.
- Buruzagitzetan prozesua baldintzatzen duten aldatetak.
- Herrialdeko herritarren artean salaketa jartzeko joera falta.

**POLITIKA PUBLIKOAREN BATZORDE SUSTATZAILEA Medellín - Kolombia**

Corporación para La Vida – Mujeres que crean Medellín-en, Kolonbian, sortu zen 90eko hamarkadan, indarkeria sozial, politiko eta delinkuentzia bereziko garai batean, hainbeste heriotzako testuinguruan bizitza ereiteko irrikak bultzatuta.

2004an administrazio publikoetan protagonismo gehiago izatea beharrezkoa zela ikusten hasi ziren, **garrantzia handiko erabakietan eragiteko eta horiek pertsona batzuen borondate on eskusiboaren menpe ez egoteko.**

Denbora honetan, genero formakuntzako hainbat prozesu bultzatu dira hainbat erakundeetako langileei, antolakundeetako kide ez diren emakume buruzagiei eta emakumeen antolakundeetako kideei baita antolakunde mistoetako batzuei ere, hezten hasi eta tresna tekniko, politiko, kontzeptuzko eta antolakuntzazkoak emateko.

Aktibatze prozesu baten bitartez, Politika publikoaren batzorde sustatzailea sortzea lortu zen, erakundeetako hainbat eragilerekin eta jendarte zibilekoekin genero ekitaterako Politika Publikoak diseinatze lan mahaia osatuta, **emakumeak eta antolakundeak solaskide eta politika publikoetako esaldi egitura bakoitzaren baliozkotasuna ematen dietenak izanda.**

2004tik 2008ra luzatu zen eztabaida konplexuen prozesua izan zen, udalerrri bakoitzean hainbat garapen mailatan sakonduta. Zenbait kasutan ekintzak, erantzukizunak, denborak eta abarrak zehazten ziren Berdintasun Planak egitera iritsi ziren.

Aldi berean hainbat diagnostiko egin ziren, horretarako emakumeekin auzoz auzo lan egin zen, giza garapeneko arlo bakoitzean, lana, enplegua, hezkuntza eta segurtasuna kasu, euren bizipenetatik behar-rrak identifikatuta.

Politika publiko horiek, beraz, emakumeekin eta eragileekin esku hartze zuzen eta iraunkorretik sortu ziren, sensibilizazio eta formakuntza prozesuen bidez.

Behin diagnostiko eta planak eginda eta tokian toki politika publikoak onartuta, politika publiko hori alkatearen bulegoan gera ez zedin, **lorpenen jarraipena egiteko ikuskaritza lana egitea** ezinbesteko zela erabaki zen.

**Kontrol politikoko eta galdagarri juridikoko** lan hori beste antolakunde batzuekin batera egiten da, jendarte zibileko eta erakundeetako eragileen egituratze mahaien bitartez.

Medellinen Secretaria de Equidad de Género para las Mujeres (emakumeentzako genero ekitate idazkaritza) eta Configuración de un Consejo Municipal de Seguridad Pública para las Mujeres (emakumeentzako segurtasun publikoko udal kontseiluaren eratzea) sortzea eta diruz hornitzea lortu zen, erakunde publikoek gune horretan parte hartzeko eta lan egutegia betetzeko duten derrigortasuna jasotzen duen administrazio ebazpen baten bidez.

Zalantzarik gabe, emakumeen jendarte mugimendua eta mugimendu feminista emakumeentzako segurtasun publikoko Kontseiluan egotea lorpena izan da, bertan, Mujeres que Crean gonbidatu iraunkor-rrak dira hiru batzordeetan eraginda:

1. Testuingurua eta feminizidioa
2. Erakunde sistemaren indartzea
3. Komunikazioa eta eragina

## **EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAK ERAUZTEKO DEPARTAMENDUKO MAHAIA. Antiokia - Kolonbia**

Kolonbiako Antiokia Departamenduaren kasuan, Emakumeen Idazkaritza arduratzen da, Belem do Pará hitzarmenean emakumeek jasaten duten indarkeriaren erauzketaren eta euren eskubideen bermearen gainean jasotako konpromisotik, udalerrri bakoitzean (125 departamendu osoan) genero politika publikoek kezkatuko den agintari bat egoteaz, bai eta udalerrriak kontratatutako funtzionario publiko bat izateaz.

Era berean, idazkaritzak emakumeen kontrako indarkeria erauzteko departamenduko mahaien osaketa sustatzen du udalerrietan, tokian tokiko genero agintaritzak koordinatutakoak. Mahai horiek nagusiki erakundeetako eragileez osatuak daude, fiskaltza, polizia eta hezkuntza eragileez esaterako, bai eta eskaera politikora zuzenduta dauden emakumeen antolakundeez ere.

Indarkeriaren erauzketarako mahaiak **ahaleginak bateratzea dute helburu, indarkeriaren aurrean neurriak hartzeko eta indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta oso berezitua, irisgarria eta kalitatezkoa emateko eskumena duten entitateen artean egituratzea, koordinazioa eta kooperazioa lortzeko.**

Hala Antiokiako departamenduko emakumeen idazkaritza, nola Medellin hiriko emakumeen idazkaritza, jendarte zibilarren eta alkatetzarako hautagaien arteko itun baten bidez sortu ziren. Antiokiako Departamenduko emakumeen kontrako indarkeria erauzteko departamenduko Mahaia 2000. urtean sortu zen.

Mahaien funtzionamendua estatu betebeharrak bezala jasota dago, gobernu aldaketak gorabehera bermatuta.

Erauzyketarako mahaien batzordeak.

### **KASUEN JARRAIPEN BATZORDEA**

Indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan, erakundearen benetako erantzunaren jarraipena egiteaz arduratzen dira, udalerrri bakoitzeko arreta ibilbidearen arabera.

### **KOMUNIKAZIO ETA EZAGUTZAREN KUDEAKETA BATZORDEA**

Emakumeen gaineko indarkeriaren testuinguruaren informazioa eta diagnostikoak jasotzeaz arduratzen den batzordea, neurriak hartzeko eta errotik kentzeko ekintzen komunikazioa egiteaz gain.

### **HEZKUNTZA ETA ERAKUNDEEN INDARTZE BATZORDEA**

Justizia eta osasun langileak indartzea, genero formakuntzako ekintzen bidez.

Emakumeen kontrako indarkeria natural eta zilegi egiten duten sinesmen, jarrera eta ohituren eraldaketarako formakuntza eta informazio ekintzak sortzea. Batetik, emakumeentzako eskubideetan formatura, eta bestetik, hegemonikoa ez diren maskulinitateak gizonetzakoekin landuta.

### **DEPARTAMENDUKO POLITIKA PUBLIKOEN DOIKETA BATZORDEA**

Momentu honetan, bake akordioaren ostean, politika publikoak bake iraunkorraren eraikuntzara doitu behar ditugu. Batzorde horrek Departamenduko plan bat sortzeko proposamena egin zuen.

## **BIKTIMA ETA BIZIRIK ATERA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZA**

Hala El Salvadorko kasuetan, nola Kolonbiakoetan, emakumeen antolakundeak izan ohi dira, baliabide eta konpromiso politiko faltagatik, kasu askotan bizirik atera diren emakumeentzako laguntasun lana garatzen dutenak.

EA Eren kasuan lan horretarako erakunde baliabideak badirela egia den arren, askotan ez dira nahikoak edo gabezia handiekin garatzen dira.

Zentzu horretan, emakumeen hainbat antolakundeek bizirik atera diren emakumeentzako laguntasun **jardun egokiak** erakusten dizkigute, zalantzarik gabe erreferentziatzat har litezkeenak, hala beste antolakundeentzat, nola erakunde publikoentzat.

Hona ezaugarrietako batzuk:

- Indarkeria matxista jasa duten emakumeen **ekintza eta eraldaketa gaitasuna aktibatzer**a bideratutako laguntasuna.
- Askotariko emakumeen **behar zehatz eta subjektibotasun espezifiko**ei arreta eskainiko dien laguntasuna.
- **Indarkeria desnaturalizatzeko berariazko lana.**
- Bizirik atera diren emakumeak **euren bizitzen egile aktibo eta euren bizipenetik eraldaketa sozialerako eragile izateko laguntzea.**
- Bizirik atera diren emakumeentzako **topaketa guneak** sortzea.
- Eragindako minaren **aitortza politiko eta sozialerako ekintzak** sustatzea, emakumeen lekukotasunen bitartez **memoria kolektiboa** eraikita, erreparazio prozesurako giltza izango den eragile politiko gisa bizirik atera diren emakumeei ahotsa eta sinesgarritasuna emanda.
- **Parte hartze eta erabaki guneetan bizirik atera diren emakumeen** presentzia.



San Salvador V Barrutiko Casa Municipal de la Mujer. 2018ko iraila

## Berehalakoan Hartzeko Zentroak

EA Eren kasuan, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea da genero indarkeriaren biktima diren emakumeen harrera zerbitzuak egotea bermatzeko derrigortasuna zehazten duena.

Arabako lurralde historikoan AIZAN Berdintasunerako Elkarte Psikosoziala da, lehiaketa publiko baten bitartez, egonaldi laburreko Berehalakoan Hartzeko Zentroak (BHZ) kudeatzen dituena, urtean 365 egunetan 24 orduko zerbitzua eskainita.

AIZANek gizarte langile, hezitzaile eta psikologoek osatutako **profesional taldea dauka, generoan berariazko formakuntza duena.** Antolakundeak dauden baliabideen arteko zubi lana ere egiten du,

Udaleko udal taldearekin, Foru Aldundiarekin eta zenbait kasutan estatuko beste harrera etxe eta udal-errietako zerbitzu sozialekin ere koordinatuta.

**BHZn gehienez hilabeteko egonaldia egin daiteke**, eta emakumeen segurtasuna bermatzeko baliabide honen **kokapenaren gaineko konfidentzialtasuna ezinbestekoa da**. Gainera, erasotzailearekin harremanik ez izatea baldintza gisa eskatzen da.

Emakume bat zerbitzura iristen denetik, **beste eragile batzuekin koordinazio lana** martxan jartzen da, hala nola, zerbitzu sozialekin edo udaltzaingoarekin emakumearen egoera berri izateko, kasuaren larritasuna ezagutzeko eta arriskua baloratzeko, betiere ibilbidean dagoen profesional bakoitzari euren istorioa behin eta berriz kontatu behar ez diotela zainduta. Auzibidea zabalik dagoenean, abokatuekin ere koordinatzen dira.

Bizitako indarkeriaz gain, bertatik eratorritako arazoak edo bestelako kanpo faktoreak, emakume etorkinen administrazio egoera irregularra edo babes sare falta kasu, laguntasan prozesuan kontuan hartzeko gai garrantzitsuak dira, kasu bakoitzaren beharren arabera profesional ezberdinekin koordinatuta.

Baliabidetik irtetea ere, behin epealdia bukatuta, beste profesionalekin ondo koordinatuta egin behar da, emakumearen segurtasuna bermatuta.

## ONDORIO OROKORRAK

- **Beharrezkoa da arreta ibilbidea zehaztea** eta sistematizatzea prozesuan esku hartzen duten eragile bakoitzaren funtzioekin (segurtasun publikoa, gizarte zerbitzuak, justizia langileak, emakumeen antolakundeak,...) **testuinguruan kokatuta, maila guztietan emakumeen behar bereziak kontuan izanda, eskuragarritasuna, diskriminazio eza eta abar bermatuta**.
- **Indarkeria matxistari modu integralean ekiteko, genero ikuspegian eta feministan berariazko formakuntza** jarraitua ezinbestekoa da, eskubideetan ikuspuntua jarrita arreta pertsonal eta espezi-fikoa eta prozesua zeharkatzen duten emakumeak berriz biktima ez bihurtzea (euren istorioa behin eta berriz kontatu behar izatea, epaituak izatea, estigmatizatzea, zalantzan jartzea...)
- Garrantzitsua da **berariazko udal guneak sortzea, egituratuak eta autonomoak**, indarkeria egoerei aurre egiten ari diren emakumei laguntzen dieten eragileen arloko koordinaziorako eta emakumeen kontrako indarkeria erazteko ekinga eraginkorrak ezartzea euren funtzioen artean dituzten horientzat.
- Emakumeen antolakundeak, mugimendu feminista eta bizirik atera diren emakumeak **solaskide egokizat hartzea bermatu behar da, eskatze politikorako berariazko funtzioa aitortuta eta prozesua eta hartutako neurriak baliozkotzeko**.
- Ezinbestekoa da mekanismoak zehaztea, **baliabideetako eta arduretako konpromisoak** pertsona zehatzen borondate onaren gainetik egoteko, beste eragileekin egituratze espazioetan bustiak dau-denak, eta **erakunde osoaren zeharkako erantzukizun izan daitezen, egiturazkoak eta epe luze-rako**.



## GURE GORPUTZEN GAINEAN ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDE

Egun, El Salvadorrek mundu osoan abortuaren gaineko bost herrialderik (Dominikar Errepublika, Nikaragua, Malta eta Vatikanoa) murriztaileetako bat izaten jarraitzen du. El Salvadorren egin zen hartu-emanen esangura gehien izan zuen gaietako bat, herrialde horretan **haurdunaldia borondatez etetea erabat zigortzearen** ondorioz emakumeen giza eskubideen urratzea izan zen.

Ondoko lerroetan El Salvadorren abortuaren kriminalizazioaren azterketa historiko eta testuinguratu egingo dugu, bai eta azken urteetan mugimendu feministak aurrera eramandako estrategien lorpene-na ere.



Emakumeen erabakitze eskubidearen aldeko manifestazioa. 2018ko iraila

### ABORTUA EL SALVADORREN 98KO LEGE ALDAKETAREN AURRETIK

El Salvadorren abortuaren erabateko zigortzea 90etan egin zen, herrialdeko gatazka armatuaren konponbiderako Bake Akordioak betetzeko testuinguruan. Akordioen artean Giza Eskubideekin bermatzailago izango zen kode penal berria sortzea zegoen, 1994-1997 lehen legealdirako hautatutako gobernua hori idaztearen arduradun izanda.

Ordura arte, El Salvadorren abortua delitua zen, egungoak baino zigor txikiagoekin (borondatezko abortuengatik 8 urtera arteko kartzela zigorrak, nahiz eta kasu askotan 30 urte artekoak diren hilketa zigorrangatik) eta **zigortu ezin daitekeen ondoko abortu formak** kontuan hartuta: (i) haurdunaldia-gatik emakumearen bizitza arriskuan zegoenean, (ii) umekiak malformazio larriak zituenean eta (iii) haurdunaldia bortxaketa baten ondorio zenean.

Lege arrazoi horiek, hala ere, ez ziren aplikatzeko errazak, askotan, bortxaketen kasuko abortuetan adibidez, medikuek erabakia epailearen eskutan uzten baitzuten, azkenean epe arrazoiengatik abortua egitea eragotzita. Hala ere, esan liteke abortua jazartzea ez zela lehentasuna; hainbat klinika pribatu abortuak egiteagatik ezagunak ziren, mugimendu feministatik zenbaitetan laguntasuna eskaintzen zitzaizaienak.

1994an, kode penalaren erreformatu aurreko eztabaidetan, lege arrazoiaren arabera abortuaren eskaera agendan lehentasunezko gisa sartzearen aukera eztabaidatu zuen mugimendu feministak. Gaiaren inguruko eztabaida politikoak jarraitu beharreko strategiaren inguruko jarrera ezberdina sortzen zuten.

Haurdunaldia borondatez etetea erabat zigorgabetzeko aukera baztertuta, legebiltzarrean lege arrazoi bat gehiago zuen proposamena aurkeztea erabaki zen, jada aitortuak ziren lege arrazoiaren betetzea

bermatuko luketen tresnak sortzeko eskaerarekin batera. Halaber, azaroaren 25a Emakumeen aurkako indarkeria erazteko nazioarteko Egun bezala izendatzeko proposamena negoziatzen ari zirela aurkeztu zen.

Testuinguru horretan hasten dira **erabakitze eskubidearen aurkako muturreko talde kontserbadorak** sortzen. «Sí a la vida» (bizitzari bai) fundazioa bezalakoak, eragiteko gaitasun handiarekin legebiltzarrean «Jaiotzeko eskubidearen aldeko Eguna» ezartzea lortu zutenak. Talde horiek abortuaren aurkako kanpaina garrantzitsu bat bultzatu zuten, abortu aukera guztiak bertan behera uztea planteatzen zuten eta, bien bitartean, abortuak praktikatzeko zituzten klinika pribatuak jazarpena hasi zen.

Nahiz eta abortuaren erabateko zigortzea ez zen gobernuaren proiektuaren parte, diputatu batzuek eta euren burua «provida» izendatzen duten antolakundeek egindako presioak, martxa jendetsuak egin zituztenek, azkenean kode penala eraldatzea ekarri zuten, zigorgarriak ez diren abortu moduak kenduta. Baita amaren bizitza arriskuan zegoen kasuetan ere.

## 98TIK ABORTUAREN ERABATEKO ZIGORTZEA

Horrela, abortuaren erabateko penalizazioa ezarrita geratu zen 1998an kode penal berria indarrean sartu zenetik. Horrek, gainera, abortua egitera bultzatzea bezalako delituak barne hartzen ditu, definizioaren anbiguotasunak informatze hutsa delitu helburutzat hartzeko nahikoa izatea egiten duena.

Emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren presioa ez zen nahikoa izan legealdi horren bukaeran Konstituzioa aldatzeko, lehen artikuluan **sorkuntzatik bertatik pertsona humanotzat hartzea txertatuta**, horrela, kriminalizazioa denborak gotortua geratuta eta erabakitzeko eskubidea erabat ezinezko eginda.

Konstituzio aldaketa hori bi legealditan jarraian onartu behar izan zen. Helburu horretarako, «Sí a la vida» taldeak eta hierarkia katolikoa sinadurak biltzeaz arduratu ziren eta abortuaren gaia jendarteratzeko baliabide garrantzitsuak erabili zituzten, **herritarren sektore zabal batean haurdunaldia borondatez eteteko edozein legezko arrazoiri arbuio handia sortzea lortuta**.

Horrela bada, abortua konfrontazio eta presio politikoko gai batean bihurtu zen, FMLN bezalako alderdi aurrerakoiagoek ere konstituzio aldaketaren alde bozkatzeko eragina.

98an legea indarrean sartu ostean hasi zen **ospitale publikoetan emakumeen jazarpena**, osasuneko profesionalak, auzipetuak izan nahi ez bazuten, abortatzera joaten ziren emakumeak salatzen derri-gortuta.

Errepresioari beldurrak abortuaz inork hitz egin nahi ez izatea ekarri zuen, **autozentsura maila handi bat sortuta, baita mugimendu feministaren barruan** ere. Geroago, eta oso isilka, jazarriak izaten ari ziren emakumei babesa ematen hasi zen.

## HERIOTZAGATIK KONDENATUAK

El Salvadorren dagoen abortuaren erabateko zigortzeak argia ikusi zuen 2006an New York Times-eko artikulua baten bidez, bertan 30 urtera arteko kartzela zigorra zuten hainbat emakumeren egoera ezagutarazten zen. Horrela ezagutu zen Karinarekin kasua, bat-bateko abortua izan zuen arren, bere alaba hiltzeaz akusatua izan eta 2002tik preso zegoen emakumea. Handik aurrera, Karinari babesa emateko hainbat antolakunde deitu ziren «Solidaridad con Karina» (Karinarekin elkartzatzea) deitutako mugimendu garrantzitsua sortuta.

«Provida» izendatuak diren antolakundeek, haurdunaldia borondatez eteteko eskubidearen aldeko antolakundeak kriminalizatzen zituzten lerroburuak erabili zituzten hedabide ezagunetan mobilizazio horiei erantzuteko. Horrek asko zaildu zuen legalki Karina defendatuko zuen inor aurkitzea.

Karinarekin kasua defendatuko zuen abokatuaren bilaketa prozesuan, zuzenbide penaleko Patricia Perello argentinarri bere espedientea bidaltzea erabaki zen, zeinak bere herrialdeko auzitegiko medikuek

berrikustea egin zuen eta epaia berrikusteko aukerak ikusi zituen. Granadako Unibertsitatearen babesa ere lortu zen, Espainiar Estatuko abokatuen antolakunde baten bitartez.

Azkenean, Víctor Hugo Mata abokatua salvadortarrak kasua defendatu zuen eta 2009ko ekainean epaiketa egin zen. Epaia berrikusi ostean, Karinaren askatasuna lortu zen.

Ezinbesteko mugarría izan zen, emakumeen erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimenduari indar asko eman ziona. Bi hilabete beranduago Nikaraguarekin truke bat egin zen, non El Salvadorren Agrupación Ciudadana por la Despenalización del Aborto Terapéutico, Ético y Eugenesico herri elkarteak sortzeko tresnak sendotu ziren.

El Salvadorren abortuaren erabateko zigortzeak eta legeriaren interpretazio makurrak, konstituzioko lehen artikulua oinarri, **zailtasun obstetrikokoak edo bat-bateko abortuak jasan dituzte emakume askok, gaur egun, askatasunez gabetuak izatea eragiten du. Perfila errepikatzen da: landa eremueta-ko baliabide gabeko emakumeak.**<sup>3</sup>

Kasu askotan emakume horiek ospitaletik zuzenean kartzelara eramaten dituzte, hasieratik gaizkile bezala tratatuak izanda, euren gainean, lehen momentutik ia automatikoa den susmo batetik abiatuta. Susmo horiek eta euren kontakizunak zalantzan jartzea epaiketan errepikatzen da, non askotan zaila izaten den defendatuko dituen abokatua lortzea, froga sinesgarririk gabe ere heriotzagatik 20-30 urteko kartzela zigorrera kondenatuak izanda.

Emakume horiek jasaten duten giza eskubideen urratzeari, euren umeak galdu izanaren mina ere gehitzen zaie askori (zailtasun obstetrikotatik eta erditzean hiltzeagatik edo galerarengatik), **beste pre-soek eta kartzelako funtzionarioek egindako estigma eta kartzelan biziraun beharreko baldintza tamalgarriak: oinarrizko baliabideen falta** (garbitasunerako produktuak, arropa, ...); kanpoko gutunak jasotzeko ezintasuna, isolamendua, ... Espetxearen barruan ere, zalantzarik gabe, desberdintasunak berregiten dituzten kontuak, non kondena motak eta presoen baliabideek zeresan garrantzitsua duten.

Testuinguru horretan, azken urteetan La Agrupacion-ek egindako lana ezinbestekoa izan da, elkarri babesa eskaini eta kartzelan bizirauteko kolektiboa sortzea lagunduta.

Gainera, jendarte hezkuntzako jardunaldiak egiten dira non, beste gauzen artean, abortuaren zigortzeak kriminalizatutako emakumeek bizi izan duten Giza Eskubideen urratzean kontzientzia hartzea lantzen den. Baita euren kasuen defentsarako eskaintzen zaien informazio legal eta juridiko falta konpentsatzeko formakuntza bidezko sendotze politikoa ere.

Beste antolakunde batzuk, Tiempos Nuevo Teatro kasu, Biodantza bezalako tailerrak egiten dituzte, non gorputzarekin alde psikologiko eta emozionala ere lantzen duten.

## LA AGRUPACIÓN

2009an Agrupación Ciudadana por la Despenalización del Aborto elkarteak sortu zen, jakintza-arlo anitzeko antolakunde bezala gizon eta emakumez osatutakoa, ondoko helburuak proposatzen dituena:

- Hiritarren kontzientzia sustatzea, herrialdean haurdunaldia etetearen gainean dagoen legeria aldatzeko.
- Abortuagatik edo zerikusia duten delituengatik kondenatuak izan diren edo akusatuak diren emakumeak legalki defendatzea.
- Jendartearen hedatzea emakumeek euren sexu eta ugalketa osasuna ziurtatzeko arreta egokia izateko beharra, euren bizitzak arriskuan jartzen dituzten segurtasunik gabeko abortuetara jo ez dezaten, etab.

<sup>3</sup> "La Agrupación Ciudadana por la Despenalización del Aborto" delako kolektiboak ikerketa-desberdinak gauzatu ditu: <https://agrupacionciudadana.org/download-category/investigaciones/>

## GATAZKA POLITIKOA

El Salvadorko mugimendu feministarentzat, gaur egun, abortuak erronka zail ezegonkorra izaten jarraitzen du, non ezkerreko alderdiak ere ez diren gai herrialdean emakumeen sexu eta ugalketa eskubideak bermatzeko lege-esparru baterantz jotzea ahalbidetuko duten jarrerak hartzeko.

Mauricio Funesen adierazpenak, 2009an FMLNren presidente bezala hauteskundeak irabazi ostean, sortzeko momentutik pertsona guztien bizitzarako eskubidearekin duen konpromisoaren gainekoak, **abortua agenda politikoan sartzeko zailtasunen** adibide argiak dira.

Administrazio publikoan abortuaren inguruan dagoen muga argia, 2010ean ere nabarmen geratu zen, ISDEMUko zuzendariari, Julia Evelyn Martínezi, izena zikindu zioten eta kaleratua izan zen Brasilen UNFPAREN (Fondo de Población de las Naciones Unidas) adierazpen bat sinatzeagatik, non gobernuak abortua ez zigortzeko politikiatarantz bidea egiteko konpromisoa hartu zuten.

Hori bezalako kasuak, erakundeetan dauden mugimendu feministako kide aliatuek ere abortuaren gainean isiltasuna mantendu behar izatea eragiten dute.

## EGINDAKO BIDEA

Aurkitutako oztopo handiez gain, eta espetxean kondenatutako emakumeek jasaten dituzten giza eskubideen urratzeak salatu eta argitaratzearen bidez, abortuaren inguruko eztabaida soziala kalean kokatzea lortu da. Asko dira azken urteetan mugimendu feministatik lagunduak izan diren kasuak, kartzelatutako hainbat emakumeren askatasuna lortuta.



Emakumeen antolakunde eta antolakunde feministen arteko topaketa. 2018ko iraila

Era berean garrantzitsua izan da Amerika Arteko Giza Eskubideen Auzitegiak (CIDH) egindako lana, bertan Manuela eta Beatrizen kasuak aurkeztu ziren eta onartuak izatea lortu zen, El Salvadorko emakumeek aurre egin behar dioten justizia eza eta giza eskubideen kasu larri eta paradigmatikoetako bi.

Manuela 30 urteko espetxe zigorrera kondenatua izan zen heriotza larriagotuagatik, 2008an umeak biziraun ez zuen erditze goiztiar baten ostean. Jada espetxean zela minbizi linfatiko bat diagnostikatu zioten, ziurrenik umea galtzera eraman zuten arazo obstetrikoen ondorio. 2010ean hil zen kartzelan, behar zuen osasun arreta jaso gabe.

2017an CIDHk kasu horregatik El Salvadorko estatuaren aurkako salaketa onartzea lortu zen eta oraindik ebazpenaren zain dago.



Beatriz, gaixotasun kroniko larri bat zuena, 2012. urte amaieran haurdun geratu zen. Nahiz eta abortu terapeutikoa egitea mediku gomendioa izan, bere bizitza arriskuan baitzegoen eta umekiak bizitzarekin bateraezinak ziren sortzetiko malformazioak baitzuten, kondenatuak izatearen mehatxuen aurrean medikuek ez zuten aurrera eraman. Azkenean, Amerika Arteko Giza Eskubideen Auzitegiak eta Batzordeak agindu bat ematea lortu zen, horren bidez haurdunaldiaren 26. astean zesarea bat egin zitzaion (umeak ordu gutxi batzuk eman zituen bizirik). Prozesu horren ondorioak, beste kasu askotan bezala, larriak izan ziren Beatrizentzat.

Egun Sonia eta Maria Teresaren kasuen jarraipena egiten ari da, emakume hauei ezarritako kondena injustuek eragindako min psikosozial eta fisikoak frogatzen dituzten adituen txostenak aurkeztuta.

Elkarteak **LAS 17** deitutako kanpaina bat jarri zuen martxan, gerora abortuagatik kondenatutako beste emakume batzuk gehitu zitzaizkion, horrela, **Las 17+** bihurtuta. Abortuarekin zerikusia duten delituen-gatik preso dauden emakume guztien jarraipena egiten dute, behin-behinean espetxean daudenena ere. Asko dira kanpainaren arrakastak eta lortu dituzten kondenen berrikuste eta baliogabetzeak.

Ondoko webgune honetan kasuen gaineko informazio gehiago aurki daiteke: <https://las17.org>

## BORROKAN JARRAITZEN DUGU

Herrialdeko legeen funtsezko eraldaketa, giza eskubideen urratzea sistematikoki gertatzea ahalbidetzen dutenak, ezinbestekoa da erreparazio prozesuetan aurrera egin ahal izateko, bereziki berriz ez gertatzeko bermeak kontuan hartuta.

Hala ere, azken urteetan ikus dezakegun bezala, eraldaketa horretarako salvadortar jendartean eman beharreko pausoak ez dira makalak. Halarik ere, La Agrupacionek eta beste antolakunde batzuek azken urteetan eramandako estrategiaren lorpenetako bat beharrezko **eztabaida soziala** sortzea izan da, gutxika-gutxika legeriaren balizko eraldaketa bateranzko diskurtsoan baldintzak sortzeko.

Zentzu horretan, Instituto de Opinión de la UCAREN (Universida Centroamericana unibertsitatea) azken inkestek, abortuaren inguruko galderak zituztenek, aurrerapen batzuk erakutsi dituzte. Egia den arren oraindik oso presente dagoela abortuaren aurkako pentsamendu hegemonikoa eta kontserbadorea, azken emaitzetan gehiengoak emakumeen bizitzarako arriskua eta umekiaren malformazioa arrazoiak txertatzearen aldeko jarrera erakusten zuten.

Lorena Peñak, FMLNko diputatuak, 2016an kode penala aldatzeko proposamena egin zuen abortuaren zigorgabetzearen alde, gaiaren gaineko polemika berriz ere piztuta. Aldi berean, ARENAK zigorrak 30 urtetik 50 urtera handitzeko proposamena aurkeztu zuen. Koiuntura horretan eta hauteskunde aurretik, lege arrazoi bat txertatzeko aukera ireki zen nahiz eta azkenean ez zuen behar besteko babesik lortu.

Testuinguru horretan ondoko ildoetan lan egiten jarraitzea garrantzitsua da:

1. Legea aldatzeko eragin politikoa.
2. Abortuagatik edo zailtasun obstetrikogatik kriminalizatutako emakumeen defentsa.
3. Iruditeria sozialaren aldaketa.

Hedabideek zeregin garrantzitsu bat betetzen dute iruditeria sozialaren eraikuntzan. Egia den arren zenbait kasutan ezinbestekoa izan dela nazioarteko hedabide batzuen lana El Salvadorko emakumeen giza eskubideen urratzeak bistartzeko, herrialdeko beste hedabide askok ez dute lan hori betetzen, areago, kasu askotan estigma eta berriz biktima izatea indartzen dute.

Ezinbestekoak dira **nazioarteko erakunde eta beste herrialdeetako administrazio publikoen eragin politikoko estrategiak**, abortuaren erabateko zigortzea salatzen dutenak, bai eta El Salvadorren abortuagatik eta zailtasun obstetrikogatik kondenatutako emakumeen egoera bistaritzen duten ahots kualifikatuak adierazpenak ere.

Beharrezkoak dira, era berean, jendarte zibileko antolakundeetatik eta mugimendu feministatik sare sozialen bidez nazioarteko elkartasun kanpainak babesten jarraitzea.

### **ASKATUTAKO EMAKUMEAK: Erreparaziorako bide geldoa.**

Kartzelatutako emakumeen askatasunaren alde antolakundeen eta mugimendu feministaren borroka, bai eta nazioarteko babesa, horietako askoren askatasuna lortzeko ezinbestekoak izan dira.

Alabaina, antolakundeek kartzela barruan hasitako lana ez da askatasuna lortzean bukatzen, erabateko oneraztea lortzeko kanpoan egiten den laguntasan prozesua oso garrantzitsua izanda.



2018ko irailean El Salvadorren askatutako emakumeekin izandako topaketa

Behin askatuak direnean, arrazoi horregatik zigortutako emakumeetako askok osasun arazo larriak dituzte, prozesuaren eta kartzelan zituizten bizi baldintza txarren ondorioz. Besteren artean, giltzurruneko gaixotasun larriak eta nahasmen emozional handiak izaten dira eta, zenbait kasutan, kondenatuak izan aurreko ugalketa-osasunari lotutako arazoak eta kartzelatuak izan ziren zailtasun obstetrikoein zuzenean lotutakoak.

Horrek, behin kartzelatik irtenda behar dituzten medikamenduen gastuei aurre egiteko laguntza handia behar izatea dakar.

**Min fisiko, psikologiko eta sozialek**, jakina, beste biktima batzuei ere larriki eragiten diete, hala nola senideei, kanpoan geratzen diren seme-alabei...

Askatutako emakumeek kontatu digute **estigma** dela, zalantzarik gabe, behin kartzelatik kanpo bizitza kaltetzen duen elementu nagusietako bat. Horrek afektu eta babes sareei eragiten die, askotan kalte-  
tuak izaten direnak, bai eta lan arloari ere, aurrera egiteko lana topatzeko zailtasun handiekin.

**«Inork ez du gudan sinesten, jendearentzat gaizkile izaten jarraitzen duzu»**, esaten digute.

Zentzu horretan, euren gain dagoen errudun sentimendua eta behin kartzelatik kanpo ere gainean daramatena da, behin askatasuna lortuta, laguntasan prozesu honetan bakarka eta taldean landu beharreko gakoetako bat.

Egoera horretan askatutako emakumeentzat garrantzia handikoa da babes taldea, nola sentitzen diren partekatzekeo gune bat bezala, kideekin elkartzekeo eta emozioak adieraztekeo.

Hala ere, gizarte langileek kontaktzen dute kasu askotan arreta psikologikoa jasotzeari aurre egiten zaio-la, profesional hauekin kartzelan bizi izan duten esperientziak sortutako konfiantza ezak eraginda, kasu askotan epaituak sentitu dira eta ez dute tratu onik jaso.

La Colectiviak banakako laguntasun lana egiten du, kartzelatik irteteak eragiten duen talkari aurre egi-teko ezinbestekoak diren bizitza proiektuak sortzeko.

Erreparazio prozesuan ezinbestekoak dira giza eskubideen urratzeen biktima diren emakumeei eragin-dako mina aitortu eta ahotsa ematen dieten ekintzak ere. Azpimarratzekoa da 2018ko apirilean La Co-lectiva Feministak El Salvadorren abortuaren zigortzearen biktima diren emakumeentzako justizia eta erreparazio sinbolikoko Auzitegia.<sup>4</sup>

Salvadorko emakumeen eskubideak hain larriki urratuak izaten jarraitzea saihesteko egungo legeria al-datzearekin batera, ezinbestekoa da **estatuak eragindako minaren aitortzarako urratsak ematea eta estigma soziala kentzeko neurriak ezartzea** bizitza osatzeko prozesuaren parte gisa.



4 Auzitegi sinbolikoari buruzko informazio gehiago: <https://las17.org/tribunal-simbolico-de-justicia-y-reparacion-para-las-mujeres-victimas-de-la-penalizacion-del-aborto-en-el-salvador/>

